



BARREN

TOKIKOM

**Bizi jaiak**



# Belaustegi Baserria JATETXEA

San Migel Gaina z/g  
943 743 102  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)

Sanbartolomeetan  
gozatu Belaustegin!

Ondo  
pasa  
jaietan!



NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

## ZELETA BARAZKIAK

ONDO  
PASA  
JAIETAN!

*Ekoizpen prozesuan  
energia berriztagarriak  
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Ortutik mahaira!  
Kalitatea bermatua!

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserrria.com](http://www.zeletabaserrria.com)

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu





# Meka

Lanbide Eskola

*Jai zoriontsuak,  
ondo pasatu eta indartsu etorri irailean lanera!*



INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



FABRIKAZIOAREN  
ZENTRO AURRERATUA  
CENTRO AVANZADO  
DE FABRICACIÓN

*Ondo pasa jaietan!*

**INGELESA - FRANTSESA - ALEMANA - ITALIERA - TXINERA**

IRAILTIK HASITA 2017-2018 KURTSOKO IKASTAROAK

- Maila guztiak
- Titulu ofizialak.
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
- Ikastaroak atzerrian.
- Multimedia gela.
- Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera

ENPRESA ITZULPEN ETA INTEPRETAZIO ZERBITZUAK

- Esperientzia zabala duen lan taldea:
  - \* Teknikoa (makina-erreminta)
  - \* Komertziala
  - \* Nazioarteko proiektuak.
- Goi-teknologiaren erabilera.
- Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa.
- Prezio lehiakorrak.





# Ondo Pasa jaietan

 elgoibarko herri eskola



**Ondo pasa jaietan!**

San Frantzisko, 37  
Tel.: 943 740 956  
ELGOIBAR

**TXIKI EGUNERAKO  
ETA  
GAZTEEN EGUNERAKO  
MENUA**

*Gabi jatetxea*

**943 741 230** Ondo pasa jaietan

- ▶ Aperitiboa
- ▶ Tomatetan bustitako ogi-txigortua urdalazpiko iberikoarekin
- ▶ Mendrezka entsalada pipar gorriekin eta kapar ozpin-olioarekin
- ▶ Pisto eta bieira kurruskaria saltsa amerikarrean

Bigarren platera aukeratu:

- ▶ Erreboiloa donostiarrak erara
- ▶ Bakailaoa pil-pilean, tomate konfitatutan
- ▶ Arkume-txuletak plantxan
- ▶ Azpizuna onddo saltsarekin

Postrea aukeratu:

- ▶ Sagar moussea txokolatezko izozkiarekin
- ▶ Hostore tarta krema eta txokolatearekin
- ▶ Naranja babaroisea menta izozkiarekin eta txokolate teilarekin

**37€**



**Rosario, 15  
ELGOIBAR**  
605 71 31 68  
943 74 40 19

BARNE-ARKITEKTURA  
(PROIEKTUAK / ERREFORMAK)  
Interiorismo eta Dekorazio Estudioa

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)



Marga Ana Iratxe Amaia Maritxu Nani Itziar

Lantaldearen partez  
**ondo pasa jaietan!**



## Kazetariak protagonista bihurtzen direnekoa

**Kazetaria ez da protagonista, gertaerak baik. Kazetaritza ikasle direnei ondo ezaguna egingo zaie esaldi hori. Zenbat aldiz ez ote zuen errepikatu esaldi hori Txema Ramirez de la Piszina EHUko irakasleak sasoi batean. "Bahitua bera denean bakarrik idatziko du kazetariak lehenengo pertsonan" zehaztu ohi zuen gero. Eta hara, horixe gertatu zitzairen BARRENEko Ainhoa Andonegi eta Ainara Argoitia kazetariei 2014an, sanbartolomeetan: asko uste gabe protagonista bihurtu zirela, eta notizia lehenengo pertsonan idazteko aukera izan zutela, nahiz egoerak behartuta, hirugarren batek egin behar izan zuen lan hori.**



**G**azteen Eguna zen, goitibeheren eguna. Argazkiak eta bideoa egitera igo ziren BARRENEko hiru kazetariak San Rokera, eta bideorako toma ezberdinak hartu aldera, bi leku ezberdinetan jarri ziren estreinakoz. Non jarri eztabaidatzen luze jardun ostean Institutuko errebueltan hartu zuten lekua Andonegi eta Argoitiak, jaitsierako bi errebuelako irudiak ondo hartzeko asmotan. Lasto-babesen eta burdinazko hesien atzean babestu ziren, Gurutze Gorriko anbulantziaren ondoan, baina bat-batean goitibehera bat gainera etorri zitzairen. Ezin irudi ikusgarriagoa hartu zuten, primerako toma, baina baita zartako ederra ere. "Puntuatzen dutenetakoa", diote berna-bizkarrean eman zizkieten puntuak gogoan. Hesia aurrean eta Gurutze Gorriaren anbulantzia atzean, ihesbiderik gabe, hantxe jo zituen urte batzuk aurrerago BARRENEko azalera eraman zituen pilotu gazte batek, ezbeharra saihesteko eginahalak egin bazituen ere. Eta albiste bihurtu zen BARREN, protagonista gure bi lankideak. "Mina demasa, baina lotsa handiagoa". Horrelaxe oroitu izan dute biek egun hartan bizitakoa. 'Alaaaaa! BARRENEkoak dira, BARRENEkoak!', oihuka entzuten nituen inguruan denak. Lurrean zuloa egin eta ihes egiteko gogoia ere sentitu nuen, baina ahalik ez horretarako! Anbulantzian sartu gintuzten eta akorduan daukat mesedez argirik ez pizteko eta sirenak itzaltzeko eskatu geniela, lotsaren lotsaz. Altzolan itzali zituen gidariak argiak".

Sare sozialen bidez irudiak zein azkar eta zein urrutira iritsi daitezkeen jabetzeko ere balio izan zuen. BARRENEko kamera ezbeharra gertatu zen lekuan bertan jaso zuen zaurituen lankide batek, eta lagunaren zauriak larriak ez zirela jakin zuenean, ospita-

lera bidali zien bideoa whatsapppe. Haietako batek etxeko bati bidali zion primizian, eta zer diren kontuak, sendagiria jasotzerako, dozenaka lekutatik iritsia zitzaion bueltan bideoa, hainbat mezuk lagunduta: "Gaur, Elgoibarren". "Bideo bat BARRENERako. Kriston lexia goitibeheretan. Nahi badozue...". Informazio emaileak, ez ziren jabetu nonbait, zaurituek eurek grabatutakoak zirela irudi gogor haiek.

Beharbada horixe izango da BARRENEk jaietan izan duen anekdotarik gogoangarriena, baina izan dira gehiago ere, horrenbeste oihartzunik hartu ez badute ere. Gertatu izan zaigu Txiki Eguneko argazki guztiak galtzea eta baita Errosario kaleko nahaspilan kamera izorratzea ere, eta gertatu izan zaigu, era berean, erredakzio barrura sartu nahian izatea zezena sokamuturrean. Danba eta danba pertsiana ere tolestu zuen urtebategi eta sekulako odol arrastoa laga, gainera, atarian. Pertsiana altxatzeko ere komeriak izan ziren orduko hartan. Jaietan, baina, bulegoan baino ordu gehiago ematen ditugu kalean, eta kazetariarenak ez diren lanak ere tokatu izan zaizkigu egitea. Elgoibarko Izarrak Txiki Egunez antolatu zuen lehenengo herri bazkaria, esaterako, BARRENEko lantaldeari egokitu zitzaion antolatzea eta horren ohituta ez gauden lanetan jardun ginen orduan, ehundik gora lagunak jana eta edana zerbitzatzen. Baina bai orduan eta bai bestelakoetan ere, beti sentitu dugu herritarren laguntza eta esker ona. Egun luzeak izaten dira jaietako hauek, baina jendea inoiz baino prestuago egoten da gure kameraren aurrean jartzeko, eta eskertzen da. Aurten ere hara-hona ibiliko gara gu, kamera eskuan hartuta, eta hemen ez bada han, topatuko zaitugu zu ere.



## Sanbartolomeetan ere dena ez dela zilegi gogorarazteko 'Eraso sexistarik ez, Elgoibar aske!' kanpaina sustatuko du Udalak



**G**auza jakina da festei bakarrik begiratuta ez dugula festetako indarkeria amaituko, jaiak ospatzen dituen jendartearen ispilu direlako eta gure jendarte honetan matxismoa oso errotua dagoelako, baina egia da, era berean, festez eta generoaz ari garela, garrantzia handia hartzen duela indarkeriak. Horren jakitun, mezu argia zabaldu du berriro ere Elgoibarko Udalak: indarkeria matxistari ez. Errespetuan eta askatasunean oinarritutako harreman batzuen alde, *Ezetzta, ezetzta da* leloa erabiliko du Elgoibarko Udalak aurtengo sanbartolomeetan ere, jaietan dena ez dela libre gogorarazteko. Hala, beldur barik jarrera hartzeko eta erasotzat har daitezkeen eta errespetuzkoak ez diren jarrerak eta jokakerak salatze eskatu diete herritarrei. *Eraso sexistarik gabe, Elgoibar aske!* kanpainaren barruan hainbat ekintza ere iragarri dituzte Berdintasun Sailetik. Kanpainako leloa daramaten txapez gain, betaurreko moreak,

*“Jaiak ikuspegi feministatik begiratuko dituen behaketa talde bat ere izango da aurtun sanbartolomeetan”*

ere banatuko dituzte aurtun; betaurreko kritikoak, jaietara ikuspegi feminista batetik begiratzeko.

Horrez gain, Baseritarren Egunean, *Beldur barik* gunea, sexu erasoen prebentziorako gunea, jarriko dute Maalan, 23:00etatik 2:00etara. Txiki Egunean, berriz, eta iaz egin bezala, *photo call* a egongo da Kalebarren plazan, 13:00etatik 15:00etara. Indarkeriaren kontrako borroka bistaratu nahi dute ekimen horrekin.

Baina bada beste ekimen berritzaileagorik ere. Mikel Etxaniz Elgoibarko Udaleko Berdintasun teknikariak iragarri du behaketa lanak egingo dituen talde bat ere izango dela aurtun sanbartolomeetan.

Jaietako egitaraua eta ekintza ezberdinak ikuspegi feministatik aztertzea izango da taldekide horien egitekoa, eta biltzen dituzten ondorioak aintzat hartuko dira gero datozen jaien diseinua egiteko orduan. Garrantzitsua delako hori ere, botere harreman desorekatuak amaitzeko: emakumeen eta oro har, hegemonikoak ez diren pertsonen presentzia handitzea gure herriko plazetan.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen litzia, hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, losu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du nere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzunkizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## ▶ FRANKISTEK ERAHILDAKO ELGOIBARTARREI OMENALDIA:

1936ko irailaren 21ean sartu ziren tropa frankistak Elgoibarren. Jende askok ihesari ekin zion, baina baita erresistentziari ere beste askok. Frankismoak erahildako, gudari, miliziano eta zibilei lehen omenaldia prestatzen ari gara irailerako. Hauek izan ziren gure datuen arabera frankismoak erahildako elgoibartarrak (batzuk ez ziren bertan jaio, baina bertan bizi ziren). Horien senideei gurekin harremanetan jartzeko eskaria egiten diegu, irailerako prestakizunak direla eta; [elgoibar1936@gmail.com](mailto:elgoibar1936@gmail.com) emailera idatzi edo 605 772 285 telefonora deitu dezakezue. Posible da zerrenda osoa ez izatea. Hala bada, deituguzue mesedez: Jose Alberdi Arrieta, Jose Alberdi Etxaniz, Emilio Etxabe Oruesagasti, Pedro Julian Agirre Gallastegi, Justo Ajuria, Mariano Arriaga, Pedro Arrieta Larrañaga, Xalbador Etxaniz Izagirre Upai, Miguel Garijo Holson, Felix Gastesi, Laskurain, Celestino Onaindia Zuloaga, Angel Osoro

Mutriku, Alejandro Retolaza Larreategi, Pedro Telleria Ascasibar, Francisco Vergara Azurmendiarrera, Aniceto Albizu Etxabe, Tomas Anzola Agirre, Hilario Arriola Iriondo, Zacarias Aspiazua Cruzalegi, Luis Astigarraga Arana, Pedro Maria Barrenechea Areta, Jose Luis Caño Gomez, Jose Txurruka Zabalera, Martin Etxebarri Chasco, Angel Etxaniz Astigarraga, Ascensio Gabilondo Agirre, Julio Gabilondo Agirre, Lazaro Gabilondo Olañeta, Luis Gomez Ortega, Larrea, Manuel Larrea Alberdi, Andres Lejardi Lisundi, Jose Lejardi Lizundia, Juan Muguerza Sasieta, Domingo Rementeria Gurtubai, Hipolito Sanchez Echaburu, Pantzesa Agirregomezkorta Etxezarreta, Josefa Arrillaga Arrizabalaga, Marina Abascal Gabilondo, Ladislao Arrillaga Irueta, Angel Suarez Echebarria, Teodora Unzueta Unzueta, Alberto Iriondo Uncilla, Andres Alberdi Bascaran, Ramon Unzilla Gonzalez. Eskerrik asko guztioi.

Elgoibar1936

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahiteez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelezar datarren eskutitz argitaratuko.

### OHARRA:

Abuztuaren 31n jasoko duzue hurrengo alea, jaietako berezia, eta irailaren 7an jasoko duzue ikasurte berriko lehenengoa. Ordura arte, ondo pasa jaietan!

BARREN

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzko Erakunde Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



**ROSA Mª  
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

### Gure komunitateko jabe batek erosi egin nahi du komunitatean bizikletak gordetzeko erabiltzen den gela bat. Jakin nahi nuke ea salmenta hori egin dezakegun.

Jabe bati komunitatearena den elementu baten balizko salmenta bat egiteaz ari gara. Arau orokorren arabera jabeen komunitateak saldu dezake bizikletentzako gela hori zein komunitatearen beste edozein gela, eraikinarentzat ezinbestekoa ez bada behintzat. Aldaketa hau egiteko komunitatearen akordioa beharrezkoa da, eta baita berez elementu komunak diren elementuei izaera pribatua aitortzeko behar diren arauzko tramite egokiak egitea ere. Beraz, ezinbestekoa izango da komunitateko jabeen akordioa, izan ere, akordio horretarako eraikinaren osagaia egokitzea beharrezkoa da. Horren harira argitu behar dugu komunitate batean egoera bat baino gehiago gerta daitezkeela horrelako kasu batean elementu komunitario ezberdinen desafektazioa kontuan hartuz gero. Baina ez da hor sartzen eraikinaren iraupena eta segurtasuna bermatzen duten elementu komunak desafektazioa. Desafektazio honetarako beharrezkoa da hainbat betebeharrak legalak erantzutea. Beraz, erregistratzaileak egindako neurketei baino ez die eragingo. Neurketa horietan kontuan hartuko da aintzat hartzen ote diren prozedura hau betetzeko aurrez ezarritako arauak. Ez da aztertuko gaiaren funtsa ezta komunitate bidearen bitartez tramitazioa egiaztatzeko jarraitu den prozedura ere.

**Aholkua: Komunitateko gela desafektatu ondoren, elementu komun bat izatetik jabe pribatua izatera pasatuko da. Beti ere komunitate kuoteri dagozkien arauak zehaztuta.**

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar





Morkaikoko presidente Iñaki Laskurain eta Mintxeta Atletismo Taldeko kide Zigor Diez, sanbartolomeetako zapiarekin, udaletxeko balkoian, 2018ko San Bartolome festei hasiera emango dien txupina piztuko duten lekuan.

# Morkaiko eta Mugertza krosa, 75 urte eta sasoi betean

**1943. urteko San Bartolome jaietan egin zuten herriko seme Juan Mugertza (Elgoibar, 1900-1936) zenaren omenezko lehendabiziko krosa. Elgoibarko Klub Deportiboko kide zen atletismo zale talde txiki batek antolatu zuen. Elgoibar inguruko mendietan eta baserri-bideetan barrena pasatzen zen ibilbidea osatu zuten antxitxikariek. Alegia, gaur egungo mendi lasterketa baten antz gehiago zuen gaur egun egiten diren krosena baino. Hain zuzen, Mugertza krosa estreinakoz egin zuten urte berean sortu zuten Morkaiko Mendizale Elkartea ere. Gerra osteko garai ilun haietan, Eupl izeneko gazte talde batek herrian mendi talde bat sortzeko beharra ikusi zuen, eta halaxe sortu zuten Morkaiko M.E. Pasa dira 75 urte ordutik, eta Mugertza krosaren eta Morkaikoren historiak udaletxeko balkoian batuko dira berriro ere abuztuaren 23an, 13:00etan. Izan ere, Juan Mugertza Nazioarteko Kroseko antolatzaileek eta Morkaiko Mendizale Elkarteko kideek elkarrekin piztuko dute sanbartolomeei hasiera emango dien txupina. Bien bideak berriro batuko zirela segurua zen.**

- ASIER ORBEA -

**M**orkaikoko presidente Iñaki Laskurain eta Mintxeta Atletismo Taldeko kide Zigor Diez pozik daude festei hasiera emango dien suziria piztuko "ohorea" partekatuko dutelako. "Pozgarria begitantzen zait Udala gutaz akordatu izana halako une seinalatu baterako. Udalak Morkaikok herriarentzat daukan garrantzia aitortzen duela uste dut. Eta poza bikoitza da une hori Mugertza krosarekin biziko dugulako. Gure bideak berriro batuko zirela segurua zen. Uste dut ez dela kasualitatea biok urte berean sortu izana; egongo da

loturaren bat", dio Laskurainek. Zigor Diezek ere ohore bat dela uste du eta krosari aitortza egiten zaiola. "Krosak asko eman dio herriari, Elgoibarren izena munduan zabaldu du. Orain herriari tokatzen zaio Mugertza krosari eskerrak ematea eta zoriontea. Horrenbeste eman dutenei aitortza egitea garrantzitsua da. Are gehiago 75 urtean krosa bizirik mantentzea lortu dutenak borondatez lanean jardun diren ehunka eta ehunka herritar izan direnean. Horiek guztiak egongo dira ordezkatuta udaletxeko balkoian", esan du Diezek.



## HERRIAREN ALDEKO BORONDATEZKO LANA

Duela 75 urte krosa antolatu eta mendi taldea eratu zuten elgoibartar haiek, eta gaur batari zein besteari tiraka dabilzanak erabat ezberdinak diren arren, badituzte antzekotasunak. Nagusia beharbada, lehen eta orain, beraien afizioaren eta herriaren alde borondatezko lana egiten duten herritarrek direla batean zein bestean motorrak. Diesel motorrak izango dira, etenik gabe eta saiatuaz bakarrik ailegatu baitaiteke 75 urte betetzera. Biek dute herritar sare handia euren bueltan. Iñaki Laskurainek uste du horixe dela elkartearen "arrakastaren funtsa". "Lagun gutxik osatzen dugu zuzendaritza, baina zuzendaritzako lanak egiten 50 bat lagun inplikatzeko lortu dugu, bakoitzak bere esparrutik tira eginez. Eta gero, 1.400 bazkide baino gehiago ditugu".

## URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Aurten ere gogotik lan egitea tokatu zaie 75. urteurrena ospatzeko. "Lana izan da bai, baina merezi zuen moduan ospatu ditugu krosaren 75 urteak. Urteko lehen hilabeteetan, krosaren bueltan, egin genituen ekitaldiak. Zerbait gehiago antolatzeko gogoia ere etortzen zait batzuetan, eta Gau krosa ez antolatzeko ere pena eman zidan, baina egindakoa balorazioa ona izan da: bi gala, umeentzako lasterketa, dokumentala, liburua, argazki erakusketa... antolatu ditugu, eta festez gozatzea tokatzen da orain", esan du Diezek. San Bartolome festetan zerbait antolatzea otu zaien galdetuta, burutik pasatu zaiola dio Zigor Diezek. "Zergatik ez? krosa sanbartolomeetan egiten hasi bazen... eta halaxe egin zuten lehen zazpi edizioetan gainera. Edonola ere, badaude jaien egitarau barruan beste kirol ekitaldi batzuk, Etxaniz memoriale txirridularitza lasterketa, herri kirolak eta futbol eta eskubaloi partidak, besteak beste.

Morkaikoren urteurrenerako prestatu dituzten ekintza nagusienak urte amaieran ailegatu dira. Arrakasta izaten ari den Elgoibar eta inguruetako natura eta ondarea ezagutzeko irteera zikloa egin dute orain arte. Urteurrenaz harago, hurrengo urtean ere izango du segida gainera. Potoloena, baina, urte amaieran izango da. Mendiko materialaz, irudiz eta dokumentuez osatutako erakusketa bat prestatzen dihardute azarorako, eta azaro bukaerarako baita elkartearen historiari buruzko dokumental bat ere. "Morkaikotik etapa desberdinetan pasatuko makina bat lagun elkarrizketatzen gabiltza dokumentalerako". Aurtengo Mendi Tour festibala ere berezia izango dela aurreratu du Laskurainek.

## JAIETAKO EGUNIK GUSTUKOENAK

Festara bueltatuz, jaiak bizitzeko gogoz daude Laskurain eta Diez. Txiki Egunaz aparte, Bezpera Eguna dute gogoko biek. Eguna berezia dela uste du Laskurainek: "Txupinazotik kalean gaudenez, motz egiten da eguna eta gaua luzea izate

ten da. Kuadrillan bizitzeko eguna da. Oporren ostean elkarren berri izateko eta oporretako edo bidaietako ibilerak elkarri kontatzeko, festa giroan. Txiki Egunak, berriz, Elgoibarren bizi ez diren elgoibartar askorekin egoteko aukera ematen du, Eguberrietan moduan, asko baitira Txiki Egunean herrira bueltatzen direnak".

Aurten, txupina jaurtitzeko "ardurarekin" bukatutakoan hasiko dute festa biek. Ez dakite balkoitik zerbait esatea tokatuko zaien, baina zer esatea gustatuko litzaiekeen galdetu diegu. "Jaiak ondo pasatzeko esan eta gora Elgoibar! oihukatuko nuke, sermoi handiegirik ez da-eta komeni. Herriari eskerrak eman eta kitto!", dio Zigor Diezek. Laskurain ere iritzi berekoa da: "Ongi pasatzeko gonbidapena egingo nieke, denei, mundu guztia errespetatuz".

*"Gure bideak berriro batuko zirela seguruia zen. Uste dut ez dela kasualitatea Morkaiko Mendizale Elkarte eta Mugertza krosa urte berean sortu izana"*

- Iñaki Laskurain -







# asador ibai-ondo

943 256 028

*Ibai-Ondo erretegia menua*

- Errezebo erreserba handiko urdaiazpikoa
- Etxeko frijituak
- Patea
- Gula eta ganba entsalada epela

- Bigarren platera aukeratzeko
- Arkume errea
  - Entrekota
  - Buztana eta masailak saltsan
  - Txipiroiak plantxan
  - Erreboiloa
  - Legatza plantxan edo arrautza-irinetan

- Postrea

**32€**

# LANBROA San Miguel

Pedro Muguruza, 5  
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

## MENU LANBROA 1

- Iberikoak
- Patea
- Frijituak

**25€**

- Bigarrena aukeratzeko
- Azpizuna
  - Masailak bere saltsan
  - Bakailoa tomatearekin
  - Legatza labean erreta

Ardoa eta freskagarriak

## MENU LANBROA 2

- Iberikoak
- Frijituak
- Txerri saiheskia erreta
- Postrea


**16€**

# USUA 943 256 028 kafetegia

## USUA MENUA

- Patea
- Urdaiazpikoa
- Frijituak
- Txerri saiheskia edo legatza plantxan
- Postrea

**20€**







## 1964-1974

Leire Agirrebeñak laga dizkigu gaur San Bartolome jaien harira argitaratu dugun zenbaki berezi honetako erretratu zaharrak. Jaietan ateratakoak dira biak. Goiko argazkia 1964. urtekoa da, eta hiru mutil koskor ageri dira bertan, txuriz jantzita eta lepoko eta gerriko gorriekin. Leire beraren aita **Jesus Agirrebeña**, **Jon Zubiaurre** eta **Jose Mari Zubiaurre** dira. Beheko argazkia hamar urte geroago eginda dago, 1974an, Kalebarren plazan. Argazkian mutil kuadrilla bat ageri da jai-giroan murgilduta. Fes-tetan saldu ohi dituzten lastozko kapela bat du jantzita haietako batek eta telazko txapela beste hiruk. Aurreneko ilarako hiru lagun, gainera, elkarri lotuta daude, soka batekin. Parranda usaina dario bigarren argazki honi, egunotan aterako ditugun beste askoren antzera. Ikus ditzagun nortzuk diren argazkiko gazteak: **Sabin Bollar**, **Jesus Agirrebeña**, **Angel Orbea (†)**, **Angel Zubizarreta**, **Jesus Osoro (†)**, **Javier Arrizabalaga (†)**, **Juan Luis Badiola**, **Casiano Alfuna**, **Julian Juaristi**, **Jose Mari Zubiaurre** eta **Javier Gabilondo**.



## “Amorrua ematen dit sokamuturraren ibilbidea urtez urte nola laburtzen duten ikusteak”

### ► ION ARRIETA SAN BARTOLOME JAIEN ZALEA

Luze eta mehe, San Bartolome, dio esakerak eta San Bartolome jaiak luze izan ohi dira Ion Arrietarentzat, jaietako egitaraua mehea izan ez arren. Aurten, larrain-dantzarekin hasi eta lanerako lehen egunean txarangak egin ohi duen bueltarekin amaituko ditu jaiak. Egitarauko ekintzen artean, sokamuturra du gogokoen, baina beste ekintza askotan ere parte hartzen du, aktiboki nahiz ikusle modura: Salbea, soka-dantza, Txiki Eguneko kalejira, Gazteen Eguneko lehiaketako epaimahaian, dantzaldietan.... Umetako jai egun haiek ez dauzka gogoan, baina geroztik anekdota asko bildu ditu, bizi dituelako sanbartolomeak.

- IRATI AGIRREAZALDEGI-

#### ◆ Jai zalea izan bazara, baina go-goan al dituzu zure lehenengo sanbartolomeak?

Ez dut apenas umetako jaietako oroitzapenik. San Bartolome Egunean suzko-erroberak egiten ziren plazan eta Cafe La Amistadetik ikusten nituen gurasoekin, baina oso txikia nintzen eta horrekin baino ez naiz akordatzen. Gerroagoko oroitzapen bat badut, Txiki Egunean mahatsa bota eta lurra labainkor gelditzen zenekoa. Ez dakit noiz-

koa den, baina modan jarri zen. Soka-dantzarekin lotura ere beti izan dut. Entseguetan txistua jotzen aritzen nintzen, baina ez nago ziur plazan jotzen nuen. Aurreskuarekin ere izan dut loturirik, Haritz Dantza Taldearekin azkena eta aurretik Elorrarekin.

#### ◆ Gaur egun jaietako gauza dezentetan hartzen duzu parte. Jaiak, beraz, nola bizi dituzu?

Jaiak gustura bizi ditut. Ekintza batzuetan egoten naiz bakarrik: Salbea, txupina-

zoak, sokamuturra, Txiki Eguneko kalejira, Gazteen Eguneko hainbat jolas eta lehiaketa... Jaietan kuadrillakoekin ere egoten naiz noizean behin, baina txarangarado joaten banaiz ez didate laguntzen. Ez zaizkie halakoak gustatzen. Bestalde, jaietan zezenak garrantzitsuak dira niretzat. Kamioitik irtetzen direnetik azkena sartzen dutenera arte gozatzen dut.

#### ◆ Zezenaren aurrean ibiltzen zara sokamuturrean?

Gertuan ez. Niretzat garrantzitsuena



sokamuturra da, eta amorrua ematen dit urtez urte ibilbidea nola laburtzen ari diren ikusteak. Iruditzen zait edozein obra egin aurretik baldintza bat jarri beharko luke-tela: sokamuturra egiteko moduan geldit-zean behin bukatutakoan. Maalako obra, adibidez, oso ondo eginda dago, baina aurretik Txarriduna inguruko gunea prestatu zutenean bidea moztu zuten. Plaz-az, urte batzuetan, itxi izan dute Leku Ederrera pasabidea eta beste batzue-tan, ez. Usuarako pasabidea ere itxita egoten da, eta lehen, libre egoten ze-nean, gusturago ibiltzen ginen, alde bate-tik sartu eta bestetik atereaz. Gero eta toki gehiago dago jendeak ikusteko, baina hesien atzetik, eta korrika egiteko gaitasun handirik ez daukagunok babes-ba behar dugu. Aseguruengatik moztzen dutela ba-dakit, baina pena ematen dit.

♦ **Sokamuturrean asko ibiltzen zarenez izango duzu oroitzapen berezirik, ezta?**

Gogoan dut programan iragarrita egon arren, ufalak izan ziren urtean ez zela zezenik egon. Goizean joan ginenok haserretu ere egin ginen, kamioia ez zela azaltzen ikusita, baina esan ziguten Mu-trikutik honako bidea itxita zegoela eta ho-rregatik ezin zela iritsi. Egun horretan txikiteo luzeagoa egin genuen. Euria egin zuen, eta orduan Truk taberna zenera joan ginen. Haiek arrainontzi batean pirañak zeuzkaten eta norbaitek galdera egin zuen: "Ufala etorri z gero, zer gertatuko da piraña horiekin?". Bada handik ordu er-dira, ura sartu zen. Beraz, bai, egun har-tan bazegoen sokamuturrik ez egiteko arrazoirik, guri pena eman arren.

♦ **Eta susturik izan al duzu noizbait ze-zenekin?**

Niri saltaka ibiltzea gustatzen zait eta ez hesi atzean egotea. Saltaka, baina beti ere distantzia batera eta hanka egi-teko babesarekin. Normalean, Elgoibarko sokamuturrean baseritarrek sokarekin eus-ten dute zezena, eta jakiten dugu gutxi go-rabehera nora joan gaitezkeen hara ez dietelako zezenari joaten uzten. Gertuegi ere ez naiz ibiltzen, badakidalako arris-kua daukadala. Ukalondokoren bat, ten-katuren bat, labaindu eta erorikoa...

badakit horrelakoak gerta daitezkeela. Ia urtero konturatu izan naiz zezena uste baino gertuago daukadala, baina sustu handirik ez dut inoiz hartu.

♦ **Sokamuturrean ezezik beste makina bat gauzatan ere hartzen duzu parte, ezta?**

Bezpera Egunean joaten naiz 13:00etako txupinazora jaien hasiera ofi-ziala delako, baina 15:00etakora boron-datez eta bizi dudalako joaten naiz. Urte batean, gainera, nik su eman nion txapli-guari. Han saltsan ibiltzen direnek gonbi-datu ninduten, urtero joaten naizelako-edo.

Salbea ere niretzat garrantzitsua da. Politikatik aparte Udaleko ordezkartzaren

irudikapen instituzionala da. Batzuk ez dira elizan sartzen edo ez dute parte har-tzen elizako ibilbidean, beraien ideologia dela-eta. Baina herriko agintarien taldea da, eta erakunde gisa batera agertzen diren egun bakarretakoa izango da. Ni orain abesbatzako kide naiz, eta egun ho-rretan kantura joango naiz elizara. San Bartolome egunean soka-dantza ikustera ere joaten naiz; asko gustatzen zait. Ha-ritz Dantza Taldea sortu genuenean ni ere dantza egindakoa naiz. Ez naiz sekula aurrelari edo atzelari izan ni baino dan-tzari hobeak bazeudelako, baina parte hartu izan dut. Gerora seme-alabak eta ilobak ere izan ditut dantzari; beraz, nire-tzat zeresan berezia du.







♦ **Txiki Eguna ere oso esanguratsua da. Zuk nola bizi duzu?**

Sokamuturrean ibiltzen naiz, baina egun horretako bereziena txarangak egiten duen kalejira da niretzat. Lehen gehiago ibiltzen nintzen, baina orain Errosario kaleko azken zatian sartzen naiz eta plazan ere ibiltzen naiz. Sokamuturraren ondoren hamaiketako egiten dugu gehienetan kuadrillan, eta txaranga hasten denean nire kasa ibiltzen naiz, kuadrillakoez ez dutelako horrelako ekintzetan parte hartzen. Gero bazkaltzera joaten gara lehengo kuadrillako batzuk. Borrokan ibili izan gara beti orduarekin. Txarangaren kalejira asko luzatu da garai batetik eta ulertzen dut gustatzen ez zaionak muga jarri nahi izatea, baina niri galdetuz gero, nik beti nuen erantzun bera: "Bazkaria, txaranga amaitutakoan". Ni gustura ibiltzen naiz txarangarekin kalejiran.

♦ **Txiki Egunean ardoa botatzea zer iruditzen zaizu?**

Ez daukat ezertxo ere horren kontra. Nik kamiseta zahar bat daukat propio egun horretarako. Nik ere noizbait bota izan dut, baina ez naiz beti botatzen duen horietakoa. Hala ere, ez dit ardoaren kontuak trabarik egiten; egun horretako kontua da.

♦ **Gazteen Eguneako Lehiaketa gastronomikoan epaile lanak ere egin izan dituzu.**

Nire burua ez dut aurkezten, baina eskatuz gero eta ezezkoa emateko

*"Txiki Eguneko txaranga hasten denean nire kasa ibiltzen naiz"*

arrazoirik ez badaukat, parte hartzen dut. Badira 3-4 urte Gazteen Egunean parte hartu izan dudala. Gazteek ere behar dute folklore horren baitan gauzak epaituko dituen helduagoren bat, beti ere giro hori gustuko duena. Polita da ikustea kuadrillak nola antolatzen diren. Kuadrilla batzuetan egoten dira sukaldaritzan adituak eta besteak laguntzaileak; beste kuadrilla batzuetan denen artean egiten dute, baina ibiltzen dira bata besteari nola egin behar

duen esaten. Jende gutxi egoten da ikusten, baina politena da ikustea nola sortzen duten beren ambientea; saltsa egoten da euren artean.

♦ **Udalak beti eskaini izan die elgoibartarrei jaietarako proposamenak egiteko aukera. Zuk egin al duzu noizbait?**

Ez dut inoiz parte hartu. Denok zain egoten gara programa noiz azalduko eta badakigu urte batetik bestera askorik ez dela aldatuko. Baina nik bizi ditut jaiak programa horrekin eta gustura ibiltzen naiz; beraz, ez daukat ezer aldatu beharrik. Aurten estreinakoz egingo den larrain-dantzan izango naiz, eta lehenengoz kantatuko dut abesbatzarekin sanbartolomeetan. Gainontzean urtero bezala gozatuko dut, edo hala nahi nuke behinik behin.





# SAHATZU HARATEGIA

Santa Ana, 5  
T943 742 048

**JON ULAZIA**  
"SAHATZU"



Etorri eta teorikoa  
atera ezazu 17  
urte bete baino lehen!

**Jai  
zoriontsuak!**



Santa Ana Kalea, 11 behea  
20870 ELGOIBAR

Mahasterreka Kalea, 10 behea  
20570 BERGARA

**943 741 011**

**943 761 663**

[elgoibar@autoescuelalarranaga.com](mailto:elgoibar@autoescuelalarranaga.com)



colchonería textil hogar

*Ondo pasa  
jaiak!*

**SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR**  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**943 744 457**



*Enpresetarako gestio programetan, segurtasunean  
eta zerbitzuetan espezializatuak*



*Ondo pasa jaietan!*

Albitxuri Industrialdea, 3i  
Tel.: 943 748 105  
[info@softlan.biz](mailto:info@softlan.biz)  
[www.softlan.eus](http://www.softlan.eus)



PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

*Ondo pasa  
jaietan!*

Deba kalea 2, behea - 20870 **ELGOIBAR** (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 74 80 13 - Fax: 943 74 81 35  
[segurarno@segurarno.com](mailto:segurarno@segurarno.com) - [www.segurarno.com](http://www.segurarno.com)

*Ondo pasa jaietan!*



GOZODENDA

**[www.muruamendiarrak.com](http://www.muruamendiarrak.com)**

San bartolome, 29 - 20870 Elgoibar - 943 740 345

“Asko betetzen  
nau geldirik  
egon arren  
jendea gure  
abestiak bizitzen  
ari dela ikusteak”



Saioa "Gauilunak"

## ► ZURIÑE HIDALGO HESIAN TALDEKO ABESLARIA

Hesian musika taldeak atsedenerako tarteak amaitu eta maiatzean ekin zion birari. Beste urte batzuetan baino kontzertu gutxiago egin arren, batean eta bestean aritu dira eta abuztuaren 28an, Gazteen Egunean, Maialako parkean izango dira. Gipuzkoan aurten emango duten azken saioa izango da. Disko berria ere hilabete bukaeran grabatzeko asmotan ziren Zuriñe Hidalgo abeslariarekin hitz egin genuenean.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

### ◆ Maiatzera arte geldialditxo bat egin zenuten eta orain berriz diharduzue kontzertuekin. Nola doa martxa?

Atsedean hartu genuen eszenatokiei dagokienez. Lokalean sartu ginen disko berria konposatzera eta denbora behar genuen horretarako. Beraz, erabaki genuen atsedean hartzea eta kontzerturik ez ematea, udaberriaren indarberriturik itzultzeko. Diskoa prestatzen ari gara, udan grabatu eta seguru asko urte amaieran kaleratzeko.

### ◆ Elgoibarren izango zarete Gazteen egunean. Zer eskainiko duzue?

Saiatzen gara kontzertu bakoitzeko zerrenda aldatzen, baina denetarik sartzen dugu, kantu zaharrak eta mitikoak; baita berriak ere. Berriak sartu arren, disko berria prestatzen ari gara oraindik, eta beraz horko kantuak diskoa kaleratu ostean hasiko gara jendearekin eskaintzen. Nahiago dugu

lehenengo jendeak entzun eta ikastea, gero kontzertuetan gurekin batera kantatzeko. Elgoibarren orain dela urte batzuk egon ginen eta oroitzapen politak ditut. Aurten kontzertu gutxiago izan ditugu eta Gipuzkoan Elgoibarkoa da azkena, beraz, espero dugu ederra izatea eta jende asko etortzea.

### ◆ Eta jendea dantzan edo entzuten ikusteak espero duzue?

Hesianek baditu kantu dantzagarriak eta horiekin jendea gora etortzen da. Beste batzuk entzuteko, sentitzeko eta momentuan gozatzeko dira. Ni, pertsonalki, gehiago betetzen nau ikusteak entzuleak, geldirik egon arren, begiak itxita zein irekita, kantatzen eta bizitzen ari direla.

### ◆ Kantu ezagunak jendeak kantatzeak zerbait eragiten dizue?

laz atera genuen azken diskoa eta aurtengoa bigarren bira bada ere, askotan ematen du kantuak jadanik zaharrak

direla. Birarekin jarraitzen dugu eta bira hau garrantzitsua da, lehenengoan behar bada jendeak ez zituelako kantuak hain asimilatuta; orain, ordea, denbora gehiago izan dute ikasteko eta gozatzeko. Bigarren birak bereziagoak dira, jendeak kantuak bere eginda izaten dituelako.

### ◆ Azken urteotan ETBn diharduzu. Horrek taldeari indarra eman dio?

Ni telebistan agertzeak ziur aski izan du modu batera edo bestera eragina; batzuetan, positiboa eta besteetan, ez horrenbeste. Niri ez zait gehiegi gustatzen horretan pentsatzea. Hori da nire lana momentu honetan eta gauza batzuetarako agian lagungarri izan da, publiko berria irabazteko adibidez. Iruditzen zait orain gaztetxo gehiago dagoela, agian *Bagoaz!* edo *Goazen!* ikusi dutenak. *Goazen!*-ek erabili ditu Hesianen kantu batzuk eta horrela joan dira deskubritzen



norenak diren, beraiek pentsatzen baitute *Goazen!*-enak direla.

♦ **Abeslari bezala edo telebistako aurkezle modura, nola zaude gusturago oholatza ginean?**

Niri benetako bizitza ematen didana nire taldea da: kontzertuak ematea eta nire musika sortzeko aukera izatea. Hori da ni asko-asko betetzen nauena. Baina taldearena ez da zaletasun hutsa, lan handia eskatzen digulako. Dena den, ez gara horretatik bizi. Orain dela lau urte suertatu zen telebistan lan egiteko aukera eta horretan dihardut gaur egun, gustura nagoelako, pila bat ikasten ari naizelako eta esperientzia aberasgarria ari delako izaten. Irakaskuntza ere aritutakoa naiz, baina orain pixka bat alboratuta dut hori. Hala ere, oso lan kuttuna da niretzat eta ez dut baztertu nozbait horretara itzultzea.

♦ **Telebistan gaztetxoek musika saioetan aritu zara. Nolako maila ikusten duzu Euskal Herriko gazteen artean?**

Badira gazte asko oso ondo kantatzen dutenak. Baina, beharbada, telebista ez da hori epaitzeko tokirik onena. Gehienek beren logeletan abesten dute, eta batzuk bideoren bat igotzen dute Internetera, baina oholatza ginean lehen aldia dute eta ez da gauza bera jende aurrean mikrofonotik abestea eta ahotsa nola proiektatu behar den jakitea. Batzuek ederki egiten dute, baina taula ginean kikildu egiten dira. Hala ere, gazte musikari eta abeslari oso onak dauden zalantzarik ez dut.

♦ **Horiek izan daitezke etorkizuneko abeslari berriak. Baina zuen disko berria nolakoa izango da?**

Diskoak Hesian taldearen esentzia izango du, baina aurten ezberdina izango da Madrilgo Juan Blas produktore musikarekin lan egingo dugulako estreinakoz, Madrilen. Guretzat kanpoko ikuspegi batetik gure kantuak nola ikusten diren jakitea eta bere iritzia jasotzea ona izango da. Pentsatzen dut lehen aldia izan arren hori emaitzan ere nabarituiko dela. Beti bezala Hesian izango da, baina ez betikoa, gu ere ez baikara duela

bi urteko berberak. Hor ere ikusiko da garapena.

♦ **Hesianek badu bere esentzia, baina urtetako ibilbidearen ostean aldaketa nabarmenik izan al duzue?**

Bai, aldaketak somatzen dira, noski. Ni taldean 19 urterekin sartu nintzen eta orduan ez nuen musika bera entzuten, ez nituen arazo eta buruhauste berdinak... Pertsona bezala hazi egin naiz eta hori hitzetan, adibidez, islatzen da. Musikari dagoenez ere badago aldaketarik. Taldekide berriak sartu dira eta nork bere estiloa ekarri du. Ez da batbatean sekulako aldaketa izan dugula, Hesian Hesian delako eta bere estiloa daukalako. Gure kantuak entzun orduko, jendeak badaki Hesian garela; estilo bat badugu. Aho-tsengatik, melodiengatik... identifikatzen gaituzte, eta hori jakitea polita da.

♦ **Ibilbidean aurrera egin ahala hitzak ere aldatu egin dira. Zuen kantuen hitzek zer islatzen dute?**

Franek eta biok idazten ditugu kantuen hitzak eta beharizan batek bultzatuta ateratzen dira. Nahiko gai ezberdinei buruz mintzatzen gara, edo nahiko ikuspuntu ezberdinak ditugu. Berak islatzen ditu bere gauzak modu batera eta nik beste batera. Hitzetan idazten dira barne hausnarketak, kontraesanak edo gizarteari lotutako gaiak, gurekin zuzenean lotutakoak. Maitasunaren gaia ere sartzen da. Gure bai-

tan, bai barruan eta baita inguruan, mugitzen diren gaiak dira.

♦ **Gai horien artean emakumeen arazoak ere izango dira. Zuen taldean bi neska zaudete, baina rock taldeetan nahiko emakume gutxi ikusten dira. Horri ematen diozue garrantzirik?**

Gaur egungo Euskal Herriko musika taldeetan ehuneko handi bat gizonetakoak dira. Horren harira lanketa bat egiten hasi ginen emakume abeslari edo musikaririk ez ote zegoen jakiteko. Egon badaude, baina zergatik ez ditugu oholatza ginean ikusten? Bada, aztertu genuen ea zeintzuk ziren emakume musikari horien beldurra oholatza gainera igotzeko. Hala ere, azken bi urteotan neska osatutako talde berri dezentek jaio dira, eta poliki-poliki aurrera doan prozesu bat da. Oraindik lan handia dago egiteko. Emakumeek muga asko dauzkagu gainditzeko, geure geureak batzuk eta kanpotik ezartzen zaizkigunak beste batzuk.

♦ **Zer estimatzen duzu gehien oholatza?**

Oholatza ginean nagoela, ikustea jendeak badakizkiela gure abestiak eta gurekin batera kantatzen dituztela. Sekulakoa da hori. Eta horri gehitu kantuan ez ezik publiko horrek sentitu ere egiten dituela guk horrenbeste mimorekin sortutako doinu eta kantuak. Izugarria da hori.



*Hesian taldeko musikari eta abeslariak.*

# Aurrekoak nolako

Badira herritar batzuk ilusio bereziz bizi dituztenak sanbartolomeak

1. San Bartolome jaiak zer dira zuretzat?
2. Zein egun duzu jaietan gustukoena?
3. Ekitaldiren bat bereziki duzu gogoko?

4. Zer ekarriko zenuke Elgoibarko jaietara?
5. Txiki Egunean ardoz bustitzea gustatzen zaizu?
6. Jaiak egunez ala gauzez?

## REGINA ARRIETA AMAMA, 71 URTE



*“San Bartolome Eguna aukeratuko nuke, duen edertasunagatik”*

1. Jai oso garrantzitsuak. Bizitza osoan gutxitan huts egin dut nik sanbartolomean. Jaietako ekintza askotan parte hartzen dut, eta guztietan gozatzen dut. Herrian egoteko egun oso bereziak dira.

2. San Bartolome Eguna, duen edertasunagatik. Meza nagusia, soka-dantza, banda... Besteei kendu gabe, baina egun horri nolabaiteko handitasuna aitortuko nioke.

3. Nik dantzan gozatzen dut, baina dantzaren arabera. Esaterako, Txiki Egunean Maalan egoten den erromerian gustatzen zait jauziak-eta egitea. Soka-dantza ederra da, eta plazako kontzertuak ere gustatzen zaizkit.

4. Ekintza askotan egoten naiz, eta ez dut bereziki ezeren faltarik sumatzen.

5. Ardoa botatzearena ohitura bat da eta giro horretan piskatxo bat botatzeak ez nau molestatzen. Baina neurrian, beti ere, izan ere, batzuek basokada osoa botatzen dute, batez ere norbait garbi dagoela ikusiz gero. Egon dira txarragoak, dena den: arrautzak eta irina botatzea, adibidez, baina zorionez badirudi amaitu dela. Txiki Egunean, txarangaren kalejiraren bukaera ordua aldatuko nuke. Urtez urte beranduago amaitzen da, eta goizago bukatuko nuke nik, beranduenez 15:00ak edo 15:30ean, bestela nekatuta, gose gabe eta loguretuta iristen gara.

6. Egunez, beranduenez gaverdira arte-edo. Nik ez daukat gaitasunik eta ezta indarririk ere gauean ibiltzeko.

7. Bai. Dantza egin izan dugu jaietan elkarrekin eta baita beste ekitaldi batzuetara joan ere. Nik bilobarekin ia edozein plan egingo nuke jaietan, baina sokamuturra ikustera ez naiz joaten, belauak gaizki ditudanetik. Lehen, atariak irekita egoten ziren haietan sartu eta babesteko, baina orain, ez.

8. Niri musika klasikoa gustatzen zait. Eta oraingo taldeen musikan oso jantzia ez banago ere, gustatzen zait kantu batzuk entzutera joatea eta nolakoak diren jakitea. Oso zaratatsu eta gogorak ez badira, gustura egoten naiz. Kalakan egon zenean, esaterako, asko gozatu nuen.

9. Enekok ez nik trabarik egiten niri.

10. Gustuko ditut eta bada bat probatu nahi nukeena, gora eta behera ibiltzen den goma, baina ez naiz ausartzen. Aspaldian ez naiz barraketan ibili eta biloben aitzakia-edo behar nuke.

11. Badira jaietara gonbidatzen ditugun lagunak, Bartzelonakoak, eta aurten ere hemen izango dira. Eta sanbartolomeak gure jai handiak izanda, oso ondo pasatuko dutela esango nieke, baina ez da erraza kanpoko bati bizi-eragitea norberak bere herrian bizi duena.



# ondorengoak halako

eta horietako bi dira Regina Arrieta eta Eneko Etxaniz.

7. Egingo zenukete jaietako plana elkarrekin?

8. Zein musika entzuten duzue gustura jaietan?

9. Gustatzen zaizue elkar parrandan ikustea?

10. Barraketan ibiltzen zarete?

11. Nola gonbidatuko zenukete kanpoko jendea sanbartolomeetara?

## ENEKO ETXANIZ

BILOBA, 12 URTE

1. Lagunok elkarrekin ondo pasatzeko egunak. Gurasoek noizbait kanpora joatea pentsatu arren, nik ezetza eman diet beti.

2. Bezpera, Txiki Eguna eta Umeen eguna. Baina bat aukeratzekotan, bezpera, jaien zain egoten garelako eta gaseosarekin, txarangarekin... hasten direlako.

3. Umeen entzierroa, buruhandiak eta Oihan Vega DJa. Ni oso zezenzalea naiz eta hasieran urduri egon arren gustuko dut entzierroa. Buruhandietan ere txikitatik ibiltzen naiz, eta orain lagunekin ibiltzen naiz korrika, zeinek zeini jotzen dion ikusi eta barrezka. Oihan Vegarekin, berriz, kantuan eta dantzan ibiltzen naiz.

4. Faltarik igarri ez arren, ikusten dut Deban, esaterako, nagusiek egiten duten ezpata dantza umeen egunean ere egiten dutela. Egutero dituzte, gainera, zezenak eta horrek ere inbidia ematen dit. Nahiko nuke nagusiek dituzten ekintzak izatea guretzat ere: soka dantza eta zezenak, adibidez.

5. Iaz, kalejiraren hasieran plazan apenas zegoen inor eta gu ibili ginen ardoa elkari botatzen eta horrek, ardo botatzeak, giroan sartu gintuen. Bestalde, txaranga berandu bukatzea gustuko ez dutenek badute alde egiteko aukera. Hala ere, ni ez naiz gelditzen bukaerara arte, ez didatelako uzten.

6. Bietan. Egunez zezenekin, buruhandiek... Gavean, oso dantzazalea naizenez, kontzertuetara joaten naiz. Gehienak gauerdirako amaitzen dira, baina batzuetan, Oihan Veganean, adibidez, geratuko nintzateke gehiago, baina oraingoz ez dut hain berandura arte gelditzeko baimenik.

7. Bai, baina badira lagunekin egitea nahiago ditudan planak. Lagunak sokamuturra ikustera etortzea gustatuko litzaidake, osaba-izebekin egoten naizelako.

8. Niri Gatibu, Izaro, Glaukoma... gustatzen zaizkit eta Oihan Vegak denetariko musika jartzen du, baita horiek ere. Oso dantzazalea naizenez, edozein musikarekin mugimentuan hasten naiz.

9. Lagunekin nagoenean amama beti bezala argazki kamerarekin etorri gero, urduritu eta alde egiten dut.

10. Bai. Pepito grillo dut gustukoena.



*“Oihan Vegaren musika saioan dantza egitea asko gustatzen zait”*

11. Norberarentzat jairik onenak bere herrikoak dira, beraz, zaila da besteak konbentzitzea gurera etor daitezen esanaz gureak onenak direla. Beren herrian gehiago gozatuiko duten arren, nik esango nieke niri gustatzen zaizkidan ekitaldietara etortzeko: entzierroetara, buruhandien kalejirara eta Oihan Vegaren saiora. Ea animatzen diren.



jai  
zoriontsuak!

[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)

# zubacor

*ONDO PASA SAN BARTOLOME JATAK*

[www.zubacor.com](http://www.zubacor.com) - [zubacor@zubacor.com](mailto:zubacor@zubacor.com)

Tel.: 943 740 844 - Faxes: 943 742 666



*Ondo pasa sanbartolomeetan!*





## ELGOIBARSANBARTOLOMEJAIK2018

**A**sier Gurrutxagaren 'Zapigorri' izeneko irudiak irabazi du sanbartolomeetako programaren azalaren lehiaketa. *Elgoibarko Jaiak* 2018 kartel irabazleak jaietan ezinbestekoa den osagaia eraman du kartelera: zapia. Bestalde, haurren lehiaketan 11 kartel aurkeztu dituzte lehiaketarako, eta hauexek izan dira irabazleak: Irati Uzkudun Cabezudo (13 urte), Nahia Baskaran Beristain (10 urte), Elaia Etzaniz Irureta (9 urte), Irati Iranzo Gonzalez (7 urte), Ekain Soto Bereziartua (7 urte) eta Ibon Baskaran Beristain (6 urte).



Elgoibarraren  
bizi, erosi  
herriak irabazi



Ondo pasa jaietan!



Euskadi, nazionala, biziarekin

EUSKADIKO JAURLARITZA

ELGOIBAR MERKATARIAK



GOBIERNO VASCO

ELGOIBAR MERKATARIAK

## ABUZTUAK 22, EGUAZTENA

**18:00 Elgoibarko Hiria Txapelketa:** Futbol partida C.D. Elgoibar-Reala C taldeen artean. Mintxetan. Antolatzailea: C.D. Elgoibar.

**19:00 laz jaiotako umeei ongi-etorria egitea.** Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**19:30 Kirol Argazkien XIII. Lehiaketako lanen erakusketa.** Kultur Etxeko erakusketa gelan. Irailaren 1era arte. Egutero, 18:30etik 20:30era, 26an eta 27an izan ezik.

**Jarraian, Jaietako Kartel Lehiaketako sari banaketa,** Kultur etxeko erakusketa gelan. Ekitaldi berean, Kirol Argazkien XIII. Lehiaketako sariak ere banatuko dira.

## San Bartolome Bezpera

### ABUZTUAK 23, EGUENA

**9:00 LXXII. Etxaniz Memoriale txirrindulari lasterketa,** 23 urtez azpiko afizionatu mailakoentzat (19-22 urte). Lasterketa hau puntuagarria izango da Lehendakari Txapelketarako. Antolatzailea: Gure Bide Txirrindulari Elkarte. Irteera: 9:15ean, Kalegoen plazan. Helmuga: 12:00ak inguruan, Pedro Migel Urruzuno klean. Sari banaketa: 12:00etan, Kalegoen plazan.

**10:00etatik 12:00etara Olasoko San Bartolome aintzinako elizara (ataria) bisita gidatua.** Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariek gidatuko dute.

**10:30 Jaien hasiera,** San Lazaro Egoitzako eta Eguneko Zentroko nagusiei zapi gorria jartzearekin batera.

**12:30 Larrain-dantza herrikoia.** Kalegoen plazan.

**13:00 Txupinazoa eta kanpai jotzea,** jaien hasiera iragartzeko. Aurten, txupinazoa Juan Muguerza Nazioarteko Krosaren 75. urteurreneko batzordeak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak kideek jaurtiko dute, 75. urteurrena dutelako.

**Jarraian, Mauxitxa txarangaren kalejira.**

**16:00 - 20:30 haurrentzako parkea,** Aita Agirre plazan eta Kalebarren plazan. Euria bada, Sigman.

**16:00 - 19:30 Kart-ak,** Kalegoen plazan.

**16:30 Sorpresa,** Zaharren Biltokian.





**17:30-19:00 Erraldoi, buruhandi eta zezen-zikleten kalejira**, Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin batera.

**Jarraian Mauxitxa txarangaren kalejira Danborradarekin batera.** Kalebarren plazatik.

**20:00 Inazio Bereziartuaren Salbea**, Parrokiako Abesbatzak kantatua, San Bartolome parrokian. Udalbatza Parrokiara bertaratuko da, Udalaren Txistulari Taldeak lagunduta.

**23:00 Serafin Zubiri, En Esenzia orkestrarekin**, Kalegoen plazan.

**00:00-3:00 Maalako gune prebentiboa.**

**BM** Termoplastiko eta Konposbeen  
Melanzako lasak  
Metal Ez-Ferriakak  
bronymec

@BronymecSA

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 98 61 62**

**A HOLKULARITZA**  
**BIKAIN**  
ASESORIA

Tel.: 943 744 557  
Faxa: 943 740 408  
e-posta: [bikain@bikainasesoria.com](mailto:bikain@bikainasesoria.com)

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea  
20780 ELGOIBAR

Jon Aranao  
Guillermo Torres

Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenerik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbata: 11:00 - 13:00

*Inopaindegi zerbitzua daukagu.  
Dena ordua hartzeko.*

**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel.: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



# HAIR'S

ileapaindegia  
San Bartolome, 6 beheko  
943 531 279

ABUZTUKO ORDUTEGIA:  
09:00-12:00

ASTEARTEETAN  
JUBILATUEN EGUNA

Orraztu  
**9€**  
Garbitu, moztu  
eta orraztu  
**18€**

Ondo pasa jaietan!



## ETXEBERRIA

### EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)  
635 756 295  
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta  
konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

## San Bartolome eguna

### ABUZTUAK 24, BARIKAKUA

9:00 Iruñeko eta Guardiako dultzaineroen Diana.

9:45 Udal Txistulari Taldearen eta Udal Musika Bandaren Diana.

10:00 Udal Musika Bandaren kalejira.

10:45 Herriko zaindariaren prozesioa. Udaltzarak parte hartuko du, Udal Musika Bandarekin eta Udal Txistulari Taldearekin batera.

11:00 Meza nagusia. Udaltzarak parte hartuko du. Mezatan, Parrokiako Abesbatzak, Udalaren Txistulari Taldeak eta Haritz EDTk parte hartuko dute.

Jarraian, LXXXIII. soka dantza. Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Udaleko Txistularien Bandak eskainia, Kalegoen plazan.







**Ondoren, Udal Musika Bandaren kontzertua.** Juanma Saezen zuzendaritzapean, Kalegoen plazan. Elgoibarko Gaiteroen eta Udal Txistulari Taldearen laguntzarekin.

- Euskaldunak irabazi (Juanma Saez)
- Basque Rhapsody (Melvin Shelton)
- Xalbaldorren heriotzean (Xabier Lete)
- Hartzaren ehiza (Luis Aranburu)
- Lau eper teilatu (Moldaketa: Juanma Saez)
- Fiesta de Calle (Luis Aranburu)

**16:00 - 20:00 Haurrentzako parkea.** Kalegoen plazan. Euria bada, Sigman.

**16:00 - 20:00 Quadak,** Aita Agirre plazan.

**17:30-19:00 Erraldoi, buruhandi eta zezen-zikleten kalejira.** Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin batera.

**18:00 Profesional mailako San Bartolome Pilota Txapelketako finalerdia.** Ikastolako frontoian.

**19:00 'Rojo Estandar' ikuskizuna Lanordikaren eskutik,** Kalebarren plazan (euria bada, Maalan).

**23:00 Su, argi eta musika ikuskizuna udaletxean.**

**23:15 Gatibu,** Kalegoen plazan.



**Ondo pasa  
sanbartolomeetan!**





ASESORIA  
**GOAR**

**KONTABILITATEA  
AHOLKULARITZA FISKALA  
ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 behega - Elgoibar    Tel: 943 742 674 / 943 740 234  
asesoria@asesoriagoar.com                      Faxa: 943 742 129

**MILAR  
BIRE**

- Garbigailuak ● Roonba ●
- Tabletak ● Telefono libreak ●
- Aspiragailuak ● Ile-lehorgailuak ●
- Telebistak ● Hozkailuak ●
- Berogailuak ● Labeak ● Indukzioa ●

**Ondo pasa  
jaietan!**

Ubitarte, 11 - Elgoibar  
943 741 487  
bire@milar.es

## Baserritarren eguna

### ABUZTUAK 25, ZAPATUA

**9:30 Ganadu Lehiaketan parte hartuko duten abeltzainei harrera.** Haritz Euskal Dantzari Taldearen eta Udal Txistulari Taldearen eskutik. Kalebarren plazan.

**Jarraian, Baltzola Anaiak** trikitilarien kalejira.

**10:00 Euskadiko Limusin Ganadu Txapelketa.** Sigmako probalekuan. 25ean eta 26an.

**11:00 XXXV. Sagardo Txapelketa eta dastatzea.** Kalegoen plazan. Antolatzailea: Sallobente Elkarte.

**11:00 XXXVII. Gazta Txapelketa eta salmenta.** Kalebarren plazan. Antolatzailea: Kalamua Elkarte.

**11:30 Elgoibarko kale kantariak.** Giroa alaituko dute euskal abesti herrikoiekin. Maalan hasita.







**13:00 Sagardo Lehiaketako sari banaketa,** Kalegoen plazan.

**13:30 Bertsolariak,** Mikel Mendizabal, Xabier Arrizabalgaga Ziarda eta German Meabebasterretxea. Kalebarren plazan.

**Ondoren, Gazta Txapelketako sari banaketa.** Kalebarren plazan.

**17:00 Baltzola anaiak trikitalarien kalejira.**

**18:00 Mintxeta Memoriala: San Bartolomeetako XX. harri-jasotze txapelketa.** Kalegoen plazan (euria bada, Ikastolan). Bi harri irregular: Mintxeta harria eta Belaustegi harria. Antolatzailea: Kalamua elkarte.

**18:30 Xarivari Blues Zirkoa,** Kalebarren plazan (euria bada, Maalan).

**19:30 Sonidos de Mexico Mariatxien kalejira.**

**23:00 Mariatxiak: Sonidos de Mexico.** Kalegoen plazan.

**23:00 - 02:00 Beldur Barik gunea.** Sexu erasoen prebentzio gunea.

**24:00 - 03:00 Maalako gune prebentiboa.** Sasoia-ren eskutik, alkoholemia frogak. Ai Lakel-en eskutik drogak testatzeko programa: substantzien informazioa eta testa.

**Jureles**  
Uspatirik  
Pedro Migel Urruzuno kalea, 10  
**943 256 105**

Ile eta buru-azalerako tratamendu organikoak.  
Irailerako hartu zure txanda.

**Jai zoriontsuak herritar guztiei!**



**Gozo goza jaiak.  
Eraso matxistarik ez!**

elgoibar  
**ehbildu**



**ESARRI AUTOAK** ZERBITZUA

MARKA GUZTIAK

**943 741 480**

Aitor: 606 975 730

Anton: 680 356 573

Faxa: 943 031 576 Olaso, 17 - Elgoibar

**karkizano***Ondo pasa sanbartolomeetan!**San Frantzisko, 14**Tel.: 943 740 549**Elgoibar***ondo pasa jaiak**

idamaileapaindegiaetaestetika@gmail.com

**SURYA**  
BELAR-DENDA

943 742 534 630 878 054

surya-belardenda@hotmail.com  
San Frantzisko, 23 - Elgoibar**MAPFRE****943 740 582**

Faxa: 943 741 707

San Frantzisko, 40, behea • patxiza@mapfre.com

## Jubilatuen eguna

### ABUZTUAK 26, DOMEKA

**8:00** Diana herriko dultzaineroekin.**Jarraian, sokamuturra.** Arnoren zezenekin. King-Kong-etik.**12:00 Hegaluze-parrillada,** Eusko Labelduna. Kalebarren plazan. Antolatzailea: Atabal Danborrada Elkarte.**12:30 Jubilatuei bereziki eskainitako meza.** San Bartolome parrokian.**14:00 Ganadu Txapelketako sari banaketa.** Kalegoen plazan.**14:30 Jubilatuen bazkaria.** Olaizaga kiroldegan. Bazkaria Eguren Orkestrak girotuko du.**17:00 Profesional mailako San Bartolome Pilota Txapelketako Finala.** Ikastolako frontoian.**18:00 Tio Teronen semeak.** Kalebarren plazan.**19:00 Dantza Solteko LXXXII. lehiaketa.** 16 urtetik berakoentzat, Kalegoen plazan. Antolatzailea: Haritz EDT, Udal Txistulari Taldearen laguntzarekin.





## Umeen eguna

### ABUZTUAK 26, DOMEKA

**11:45 Haurrentzako entzierroa.** King-Kong-etik Aita Agirre plazaraino.

**Jarraian, zezentxoak eta pottokak txikienentzat.** Aita Agirre plazan.

**11:30 - 12:15 Marrazki lehiaketarako izen-ematea,** Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Gurutze Gorria (ordurako eman beharko da izena, jarritako ordutik aurrera ez da inor onartuko). Gaia: Elgoibarko jaiak.

**12:30 Marrazki lehiaketaren hasiera.** Elizako arkupeetan.

**13:45 Marrazki lehiaketako lanak jasoko dira.** Elizako arkupeetan.

**14:00 Haurrentzako bazkari herrikoia,** Elizako arkupeetan. 7-14 urte bitartekoentzat.

**Jarraian, Txiki Txef:** taloak, gailetak, fruita brotxetak txokolatearekin, txokolatezko piruleta eta gozoki tartak. Kalegoen plazan.

**17:00 Marrazki lehiaketako sari banaketa,** Kalegoen plazan.

**Erraldoi, buruhandi eta zezen-zikleten kalejira.** Maixita txarangarekin batera. Haurrak mozorrotuta joatera animatu dituzte.

**19:00 Dantzateke.** Maalako parkean. Iluntzean, gune prebentiboa, Kalegoen plazan. Botiltzarra programa.

**23:00 Disko festa Oihan Vega DJarekin.** Kalegoen plazan.



**DOÑA MERCEDES**

**DENDA**

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
943 742 652

**OBRADOREA**

Olaso, 55 - Elgoibar  
943 742 137

*Ondo pasa jaietan!*

*Osasun gida - Osasun gida*

*Osasun gida - Osasun gida*

*Osasun gida - Osasun gida*

*Osasun gida - Osasun gida*

*Osasun gida - Osasun gida*

  
RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**fisio&mas**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea  
  
Trenbide kalea, 18  
943 740 191 / 667 933 628  
www.fisio-mas.com  
RPS 122/18

  
RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

**leku edero**  
hertz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

  
RPS 271/12  
Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
  
Terribio Etxebarria, 22  
Elbar  
Tel. 943 108 020  
Mug. 677 551 850

**FUB** Fernando  
Urizar  
Barandiaran  
R.P.S.: 32/17  
Medikuntzan doktorea  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitiko  
Psikosomatika  
Ego-Gain kalea, 18-1A (Elbar)  
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)  
furizar1@yahoo.com  
615 715 404



## Txiki eguna

### ABUZTUAK 27, ASTELEHENA

8:00 Mauxitxa txarangaren eta Elgoibarko dultzaineroen diana.

Jarraian, sokamuturra Amoren zezenekin.

**Ondoren, salda eta txorizo banaketa.** Herriko kaleetan. Karakate, Ego Toki, Zubi Ondo, Herri Gain, Goiko Errota, Gure Bide elkarteen eta Batzokiaren eskutik.

12:00 Zezentxoak eta pottokak txikientzat, Aita Agirre plazan.

12:30 Mauxitxa txarangaren kalejira.

13:00-15:00 'Jaietan ere, ezetza ezetza da' fotokola. Kalebarren kalean.

18:00 Profesionalen arteko esku pilota jaialdia. Ikastolako frontoian.

18:30 Umeentzako herri kirolak: lastoa, txingak, harria, lokotxak, kontrabandista karrera, sokatira, frontza... Aita Agirre plazan.

20:00 Rockbox. Kalegoen plazatik hasita.



*Maria Urizar*  
Ileapaindegia



Errosario kalea, 9 - 1 ezk.  
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar  
[maria.urizar@hotmail.com](mailto:maria.urizar@hotmail.com)

Masaje zentrua  
*Idoia Garcia*



Trenbide kalea, 19 - Elgoibar - 943 531 221  
*Ondo pasa jaietari!*

ONDO PASA  
JAIETAN...



[nava@euskalnet.net](mailto:nava@euskalnet.net)

**NAVA**

INPRIMATEGIA







## Gazteen eguna

### ABUZTUAK 28, MARTITZENA

8:00 Diana Elgoibarko dultzaineroekin.

Jarraian, sokamuturra Arnoren zezenekin.

**Ondoren, salda eta txorizo banaketa.** Herriko kaleetan. Karakate, Ego-toki, Zubi-ondo, Herri-Gain, Goiko Errota, Gure Bide elkarten eta Batzokiaren eskutik.

12:00 **Goitibehera jaitsiera**, Azkuen (San Roke). Antolatzailea: Gurutze Gorria. Izena ematea: irteeran bertan.

Jarraian, **Mauxitxa txarangaren kalejira.**

18:00 - 19:00 **Funbox factory:** Dirt Jump eta Trialsin. Kalegoen plazan. Euria bada, Ikastolan.

19:30 **Brincadeira Percusion taldearen kalejira.** Kalegoen plazatik irtengo dira.

23:00 **Nogen eta Hesian**, Maalako parkean.

.....

### IRAILAK 1,2,3 eta 4

22:00 **Kintopekoen V. idi probak**, Sigmako probalekuan. Antolatzailea: Sigma Probaleku Herri Kirol Elkarte.

**TANTAKA**  
Aita agirre, 5  
Tel: 943 030 736

**TABERNA**



🔹 **Pintxoak**

🔹 **Entsaladak**

🔹 **Ogitartekoak**

🔹 **Plater konbinatuak**

🔹 **Razioak**

**Gozatu  
jaixetan!**





# GOKI



erreformak



- Eraikuntzen zaharberritzea, isolamendu termikoa
- Teillatuak eta estaldurak
- Etxebizitzaren erreforma, bainugelak, sukaldeak ...
- Iggogailuak
- Margo lanak
- Gremioen koordinakuntza



Energia-eraginkortasunaren  
ziurtagiria



I.T.E.  
Eraikinen ikuskaritza teknikoak

**GOKI**  
erreformak

[www.gokierreformak.com](http://www.gokierreformak.com)

Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587  
[goki@gokierreformak.com](mailto:goki@gokierreformak.com)

Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA  
Tel.: 943 765 342 - Faxa: 943 765 216  
[bergara@gokierreformak.com](mailto:bergara@gokierreformak.com)

**Ondo pasa San Bartolome jaietan!**





# ETXE-TAR



San Antolin 3 • 20870 Elgoibar • Tel.943 740 600 • Faxa 943 743 472  
[etxetar@etxe-tar.com](mailto:etxetar@etxe-tar.com) • [www.etxe-tar.com](http://www.etxe-tar.com)

## ARMUETA HARATEGIA

**ANGEL ARRIZABALAGA**

San Bartolome, 16 - 20870 Elgoibar  
**943 740 640 - 630 225 428**

Jatekoa prestatzen dugu enkarguz,  
lagunarteko otordueterako, zein etxerako.  
Piper beteak, albondigak, okela gisatua, etab...

**ETXEAN HAZITAKO TXAHAL-OKELA**



**UNCETA**

## Unceta Taldeak

jai zoriontsuak opa dizkizue



**UNCETA**  
Herrizaintza de Gasteiz

Erreminta industrialen  
hornitzaile liderrak

943 74 40 00  
[www.unceta.es](http://www.unceta.es)



**SARIKI**  
METROLOGIA

Metrologia adimendua  
fabrikazio prozesuetan

943 74 38 08  
[www.sariki.es](http://www.sariki.es)

**LABMETRO**  
Laboratorio de Metrologia

Kalibrazio laborategia

943 74 38 30  
[www.labmetro.es](http://www.labmetro.es)





Uztailean egin zituzten Larrain-dantzako entseguak ia 40 lagunek.

## Larrain-dantza, jaiei kutsu herrikoia emateko

**Larrain-dantza gizon-emakumeen dantza da, plazan, biribilean bikoteka dantzatzekoa. Dantzariak eskuak zapi baten bidez loturik dantzatzen dute dultzainek eta danborrek lagunduta. 13 minutuko dantzan hainbat dantza korapilatzen dituzte.**

Lizarratik dator, baina gero eta herri gehiagotara zabaltzen ari da. Dantza taldeen ikuskizunetan ohikoa da, baina modu herrikoian ere egiten dute hainbat lagunek, batean eta bestean. Elgoibarren ere aurten tokia egingo diote, San Bartolome bezperan (12:30ean, Kalegoen plazan). Eta San Bartolome egunean (21:00 Maalako Gune Askean).

Eibarren, Soraluzen, Deban, Mutriku, Barakaldon, Portugaleten zein Euskal Herriko hiriburuetan larrain-dantza jendeurrean egiten zela ikusita 'Elgoibarren zergatik ez?' pentsatu zuten hainbat lagunek. Izan ere, Elgoibarren bada nagusien talde bat plazako dantzen ikastaroan aritu izan dena Gabon Zaharretako feria egunean umek plazan dantza egiten dutenean parte hartzen duena. Hor ikasten dituzte erromerietan gaur egun egiten diren jauziak... Baina gustuko dute larrain-dantza eta eskatu izan dute kalean modu

herrikoian egiten dena ikastaro batean jasotzea. "Baina ikusi genuen ez ginela nahikoa izango plazako dantzen ikastaroan parte hartu genuen 23 pertsonak eta horregatik ikastaroa eskaintzeko eskatu genien Haritz Dantza Taldeari eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolakoei, ikasi eta gerora dantza jendaurrean erakusteko", esan dute eskaria egin zutenek. Ia 40 lagun aritu dira uztailean ikastaroan, "gazteak gutxi". Iera Larrañaga debarra, Haritz Dantzari Taldeko dantzaria, izan dute irakasle. Larrañagak larrain-dantza ikastaroak eman izan ditu aurrez Deban.

### Dultzaineroak ezinbesteko

Larrain-dantzarako dultzaineroak ezinbesteko dira, baina, eta Elgoibarko dultzaineroek hasieratik eman zioten baietza ekimen honi. Herri askotan ez da dultzainerorik izaten eta horietan zain-zain ego-

ten dira noiz dultzaineroak inguratuko larrain-dantza egin ahal izateko. Abantaila hori badu, behintzat, Elgoibarrek. Larrain-dantza 6-7 dantzaz osatua dago, baina erritmoa mantendu aldera, danborra ez da isiltzen 13 bat minutuan. Oso dantza herrikoizat dute bai dantzariak eta baita dultzaineroek ere, eta begira egon beharrean dantzara batzera gonbidatu nahi dute jendea; ahal dela prestatuta, noski.

Elgoibarren egin izan da larrain-dantza lagunartean, baina goizaldera, Gabon Zahar feria egunez adibidez. Ekimen honen bultzatzaileek, hala ere, uste dute hori ez dela modua. Garbi dute badela argitara ekartzeko ordua, egun argiz eta plazan egitekoa. "Dantza herrikoia izanik badago ohitura *ganberro* modura egiteko. Jakin ez arren, plaza erdira irten eta nola-hala egitekoa. Eta bai, konforme, ez da balleta eta ez dugu nahi ballet bat izaterik, baina behintzat entsegua egin





eta pixka bat ikasi behar dela uste dugu”, esan du Txomin Mujika dultzaineroak.

Noizbait modu herrikoian egin dela uste badute ere, 30 urte baino gehiago badira antolatzaileen ustez Elgoibarren larrain-dantza egiten ez dela. Aurten San Bartolome bezperan eta San Bartolome egunean egingo dute, baina Txomin Mujikak garbi du etorriko dela beste aukerarik ere. “Ez dakit aurten zenbat dantzari batuko diren, baina aurtengoa ikusita, seguru datorren urtean gehiago izango direla. Hori da helburua: gauza normal bat egitea, dantza hori herrian edozein unetan egiteko. Aitzakiak eta jai giroko egunak asko daude. Baina izan dadila dantza herrikoia bat, jendeak parte hartzeko. Ezaguri horixe du larrain-dantzak beste leku askotan”.

Herri eta txoko askotan egiten dute larrain-dantza, baina bai Txomin Mujika



etara eta baita lon Arrietak ere Iruñeko sanferminetan, egunero Gaztelu plazan egin ohi dutena dute bereziki gogoko. “Harrigarria da zenbat jende egoten den; ez dio axola ezezagunen artean dantzarako bikoteak osatzea ere”, dio

Mujikak. Bat dator lon Arrieta ere. “Iruñean dultzaineroek eta txarangak batera jotzen dutenean egiten den larrain-dantza sekulakoa da. Ni erabat hunkitzen nau. Ea noizbait hemen ere egitea lortzen dugun”.

JAIETAN,  
ONDO  
PASA!!





# Kultur eskaintza oparoa

## LANORDIKA. 'ROJO ESTANDAR' IKUSKIZUNA

Abuztuak 24, San Bartolome Eguna. Kalebarren plazan, 19:00etan.

Ikuslego zabalarentzat da Andaluziako Lanordika konpainiaren *Rojo estandar* ikuskizuna, eta kaleko ikuskizunik onenaren Feten eta Andaluziako Lorca antzerki sariak eskuratu izan ditu. Erdigunetik alde egiteko mugimenduak egin arren, aurkako bi pertsoniak bat egingo dute surrealismoz jantzitako eszena batean. Koloreak izango dira erritmoaren ardatz eta zirkoa eta dantzak ikuskizunaren muina.



## 'GATIBU' KONTZERTUA

Abuztuak 24, San Bartolome Eguna. Kalegoen plazan, 23:15ean.

Gernikako rock taldea. Alex Sardui abeslaria buru duela Haimar Arejita gitarristak, Gaizka Salazar bateria-joleak eta Mikel Caballero baxu-joleak osatutako taldea da. Gauaz, sexuaz edo maitasunaz bizkaieraz abesten ditu kantu fresko eta zuzenak. Zazpi disko kaleratu ditu. *Asko maitte, aske bizi* dute azkeneko lana, eta izen bereko kantua oso ezaguna egin da, bereziki gazteen artean.

## 'XARIVARI BLUES' ZIRKOA

Abuztuak 25, Baserritarren Eguna. Kalebarren plazan, 18:30ean.

Brasil eta Katalunia bateratzen dituen Circo Los zirku garaikideko konpainiak musika erritmo frenetiko, indartsu, dotore eta umoretsua duen *Xarivari Blues* ikuskizuna eskainiko du. Malabar-erakustaldia egingo du mazo eta uztaiekin, monozikloekin, jauzi eta dantza egiten duten bizikletatxoekin eta ohe elastikoarekin.



## 'SONIDOS DE MEXICO' MARIATXIA

Abuztuak 25, Baserritarren Eguna. 19:30ean kalejira, eta 23:00etan, kontzertua, Kalegoen plazan

Texcocoko mariatxia. 15 urteko ibilbidean Mexikoko doinu ugari bildu ditu eta balletari ezezik abeslari askori ere lagundu die beren soinuekin. Telebistan ere jardun dira. Mexikoko jantzi eta kapela dotoreekin jantziko ditu taldeak Elgoibarko kaleak eta taula gaina.



## TIO TERONEN SEMEAK 'FRESHCOOL' IKUSKIZUNA

Abuztuak 26, Jubilatuen Eguna. Kalebarren plazan, 18:00etan.

*FreshCool* ikuskizunak aurrekuaren soiltasuna eta ganberroeria batzen ditu umorez betetako saioan. Euskal dantza bitxiak izango dira. Raphaelen kantaren bat euskal dantza herrikoiekin nahastuko dute esate baterako Tira, ba Tio Teronen Semeak taldekoek.



## ZIRIKA ZIRKUS 'DANTZATEKE' IKUSKIZUNA

Abuztuak 26, Umeen Eguna. Maalako parkean, 19:00etan.

Madonnaren, Lady Gagaren edo Beyoncerenak grabatu ondoren orain Elgoibar aukeratu du Antonello Fellini zinema zuzendari ospetsuak urteko bideo klipa grabatzeko. Zirika Zirkus taldeko Ainhoa Juaniz, Sergio de Andres, Luis Lainez, Hodei Goikoetxea eta Sabiñe Aetx aktoreek hartuko dute parte.

## 'DISKO FESTA: OIHAN VEGA'

Abuztuak 26, Umeen Eguna. Kalegoen plazan, 22:30ean.

Irrati esatari, aurkezle eta musikari lanetan aritzen da mutil bergararra eta herri ugari igarotzen ditu *Diskofestarekin*. Askotariko kantuak ipintzen ditu, eta plaza guztiak jai giroz goraino betetzeaz gain, dantzatzeko doinuak ere ipiniko ditu Elgoibarko plazara gerturatutakoak animatu eta dantzan jarzeko.



## 'ROCKBOX' KALEKO IKUSKIZUNA

Abuztuak 27, Txiki Eguna. Kalegoen plazatik abiatuta, 20:00etan.

Tolosako (Frantzia) boskoteak rockeko munduko izar handien (ACDC, Rolling Stones, Led Zepellin, Queen, David Bowie, Jimi Hendrix, The Who...) bertsoak txaranga moduan joko ditu. Garai bateko estetika eta rock klasikoa eskainiz, baliteke adin batetik gorako herritarrek erakartzea.



## 'NOGEN' KONTZERTUA

Abuztuak 28, Gazteen Eguna. Maalako parkean, 23:00ean.

Donostiako folk-pop musika taldea da. Euskarazko eta ingelesezko kantuak nahastuz eta ukelele, gitarra, baxu, bateria eta ahotsekin jokatuz eskaintzen dituzte doinuak. 2018aren hasieran lehen lan luzea, *Liv til døden* (hil arte bizi), grabatu zuten. Lehen singela, *Enarak*, udaberrian argitaratu zuten eta diska udazkenerako izango dute kalean.

## 'BRINCADEIRA PERCUSION' KALEKO MUSIKA

Abuztuak 28, Gazteen Eguna. Kalegoen plazan abiatuta, 19:00etan.

Bartzelonako Ciutadella parkeko perkusio topaketetan sortutako taldeak perkusioaren isiltasunetik irribarrea ateratzea izango du helburu. Gorputz mugimenduaren eritmoaren laguntzaz iritsiko da ikus-entzuleengana.







**Elgoibar BHI**

[www.elgoibarbhi.eus](http://www.elgoibarbhi.eus)

Elgoibar BHI

Arregitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: [01343faa@hezkontza.net](mailto:01343faa@hezkontza.net)



**Jai zoriontsuak!**



®

**PNEUMAX**

**AUTOMATIZAZIO NEUMATIKAKO OSAGAIK**



Olaso kalea, 15 eraikina, Pab. 52 - 53 - 54

Elgoibar (GIPUZKOA) - 943 74 41 44 - Web: [www.pneumax.es](http://www.pneumax.es)

**AHAL DUGU  
ELGOIBAR  
PODEMOS**

**Ondo pasa jaietan!**







**KARAKATE**  
Jatetxea

Sanbartolomeetako menua **30€-tan**  
deitu **627 396 492**  
zenbakira.

Olasope, 1 - Elgoibar

[karakatejatetxea@hotmail.com](mailto:karakatejatetxea@hotmail.com)



**ileapaindegia**  
**estetika**

**943 747 4 21**  
San Bartolome, 33 bajo - ELGOIBAR

**NOA**

 Noa Estetika

**estetikaalire**

- \* Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- \* Ongizate tratamenduak
- \* Masajeak
- \* Fotodepilazioa
- \* Mikropigmentazioa
- \* Manikura
- \* Solariuma
- \* ...

Upaz zeharra, 1 behea  
Tel.: 943 531 636  
Elgoibar



Ondo pasa jaietan!



**ims**  
AHOLKULARITZA

**www.ims.eus**  
**943 740 855**

- Kudeaketa sistemen mantentze-lanak eta laguntza
- Aholkularitza zerbitzua
- Prestakuntza



**ZURE ALDE**

**Iñaki Gil Azpilicueta**  
**ABOKATUA**

Zibil-Jabetza horizontala  
Komunitateen kudeaketa

Jausoro plaza, 3 -behea  
943 531 351

[gilazpilicueta@zurealde.net](mailto:gilazpilicueta@zurealde.net)  
Elgoibar

**A. Garate**

**Era guztietako igeltsaritza lanak egiten arotua**  
[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

**610 226 651**

**Cristina Garcia**  
Estetika eta Terapia Naturalak

**Ondo Pasa JAIXETAN!!!**

943 74 29 50  [cgestetika@gmail.com](mailto:cgestetika@gmail.com)

Errosario kalea 19  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

**IBILTZEN**

PODOLOGIA-KONTSULTA  
IDOIA ARRILLAGA

Ubitarte plaza, 11, behea - 20870 Elgoibar  
**Tel: 943 743 656**



**AGURTZANE**  
c.b.

*ileapaindegia*

**Fotodepilazioa egiten dugu**

**ONDO PASA JAIXETAN!**

Santa Ana, 18  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 741 864

**ARAMBURU**  
BITXIDENDA

**Ondo pasa jaietan!**

San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar



**Jasone**  
Zerbitzu Erakundeak

San Ignazio, 1 • ELGOIBAR  
Tel.: 943 53 17 45  
[jasone@jasoneeg.com](mailto:jasone@jasoneeg.com)  
[www.jasoneeg.com](http://www.jasoneeg.com)

- INPRIMAKETA DIGITALA
- Lan komertzialak, Inudi korporatiboak
- Katalogoak, Liburuak
- Kartelak, Egutegiak
- Ezkontza gonbidapenak
- Zorion-agurrak, etab.
- TAMAINA HAUNDIKO KARTELGINTZA



Ondo pasa jaietan!



**ARMERIA**  
**Sport Guns**  
REPARACION

**943 257 762**  
**616 480 897**

Antonio Arrillaga 3, behea

[info@armeriasportguns.com](mailto:info@armeriasportguns.com)  
[www.armeriasportguns.com](http://www.armeriasportguns.com)





## ► PEDRO ZABALLA

EUSKADIKO LIMUSIN ARRAZAKO FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

# “Limusin arrazako behien okelari etekin handia ateratzen diete harategietan”

Euskadiko Limusin Arrazako Federazioan 4.000-4.500 buru dituzte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eta abeltzainak 220 inguru. Gipuzkoa da limusin-buru gehien dagoen herrialdea. Elkarteko kideen artean Elgoibarko zazpi baserri ere badaude. Elgoibarren urtero egiten da San Bartolome jaietan limusin arrazako ganaduen lehiaketa. Gipuzkoakoa eta Euskadikoa, txandaka. Aurtengoa Euskadikoa izango da, eta federazioko presidente Pedro Zaballak hitz egin digu arraza honi buruz.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

### ◆ Limusin arrazako ganaduek nolako ezaugarriak dituzte?

Limusinak gauza on asko ditu. Esaterako: azalean okela asko sartzen zaio; bizkar hezurra zuzena, zabala eta luzea du; hanka finak dauzka... Txahala erraz egiten du eta erditze onekoa izatea oso garrantzitsua da animalia batean, horrek baldintzatu dezakeelako bere bizi-itxaropena. Beraz, zenbat eta txahal gehiago, orduan eta hobe abeltzaintzat. Gainera, oso landa-giroko animalia da, eta oso ondo portatzen da taldean.

### ◆ Arraza honetako ganaduen lehiaketak Elgoibarren ezezik beste hainbat

### tokitan ere egiten dira. Lehiaketan zeri erreparatzen diote epaileek?

Lehiaketak gehienbat egiten dira ikur-luetako egoera nolakoa den ikusteko eta abeltzainen artean harremanak sortzeko. Horietan kontuan hartzen direnak ezaugarri morfologikoak dira, ganaduen itxura: azala, bizkar hezurra, hankak, begien buelta zein koloretakoa duten...

### ◆ Hori hartzen da kontuan, bai, baina limusinen kasuan nolakoak izan behar dira horiek. Zelako ezaugarri morfologikoak dituzte?

Hurritz kolore ilunekoa izan behar du

goi partean, hanka arteak zuriak, baita begi inguruak eta muturra ere. Bestalde ez du inon orbanik izan behar.

### ◆ Limusinei azalean okela asko sartzen zaiola esan duzu. Jendeak estimatzen du limusinen haragia?

Limusin arrazako behien okela goi mailakoa da eta harategietan etekin handia ateratzen diote. Hezur finak dituzte eta haragia bereziki dirua balio duen tokietan: bizkar hezurtean, hanka aldean... Harategietan, beraz, harakinek beraiek oso preziatua duten haragia da. Harakinak kanal bat erosten duenean ahalik eta okela gehien atera





nahi du hortik, ez hezurra. Gainera, Euskal Herrian nahikoa abeltzain dago berziki horrelako ganadua gizentzen.

♦ **Elgoibarko lehiaketa egun bakarrean jokatu da orain arte eta aurten bi egunekoa izango da. Zer dela-eta egin duzue aldaketa?**

Orain dela urte batzuk egiten zen bi egunekoa, baina gero, tokia zela-eta, arazoak egoten zirenez egun bakarrekoa izatera pasatu zen. Iaz proposatu genuen bi egunekoa izatea eta lortu dugu aldatzea. Abeltzain asko Arabatik eta Bizkaitik etortzen gara, eta goizean goiz, presaka ibili behar izaten gara ganaduak prestatu eta ekartzeko. Beraz, bi egunekoa izateak lasaitasun pixka bat ematen digu. Lekua ere aldatu dugu, besteak beste Aita Agirre plazan obrak daudelako. Baina Sigmako probalekua oso toki ona da, herri erdigunean egon ez arren, herritik gertu dagoelako eta esparru zabala delako. Gainera, aterpea dago, eta hori beharrezkoa dugu, ganadua bi egunez han mantentzeko, ez dakigulako zein eguraldi egingo duen.

Euskal Herriko Limusin txapelketa urte batean Gipuzkoan egiten da, eta hurrengoan, Bizkaian. Elgoibarren bi urtean behin izaten da, baina Euskal

## *“Sigmako probalekua oso toki ona da, erdigunean egon ez arren, oso gertu dagoelako eta esparru zabala delako”*

Herrikoa ez denean Gipuzkoakoa egiten da bertan, beraz, urtero dago limusin lehiaketa.

♦ **Lehiaketetan parte hartzeko ondo zaindu beharko da ganadua, ezta?**

Abeltzainen eskua oso garrantzitsua da denean bezala. Euskal Herriko abeltzainok bederatzita hilabetez larrean izaten ditugu behiak, larrean bizitzeko jaiok direlako. Gero, negu gorrian, euria eta elurra dela-eta normalean ikuiluan sartzen ditugu, baina ahalik eta denbora gehien larrean izaten ditugu. Animalia zelaian libre dabilenean dago ondoen, baina urteetan aurrera egin ahala ikuiluak gero eta hobeto prestatuta daude, beraz, barruan ere ondo zainduta egoten dira. Bestalde,

azokara eramateko edo lehiaketetara aurkezteko are hobeto zaintzen dituzte abeltzainek eta dutxatuta eta apain- apain ekartzen dituzte.

♦ **Zer espero duzue aurtengo lehiaketatik?**

90 buru izango dira gutxi gorabehera, 13-14 mailatan banatuta. Atal batzuetan, urruak, eta besteetan, idiskoak, eta gero, adinaren arabera ere banatzen ditugu. Gaztetxoetan, esaterako, ikusten da azken urteetan zenbaterainoko aurrerapenak egin dituzten.

♦ **Lehiaketak egiten badira, bada maila esanguratsua dagoelako, ezta? Etorkizuna nola ikusten duzue elkartetik?**

Limusin arraza oso zabaldua dago bai Euskadin, bai Espainian, Frantzian eta baita beste zenbait herrialdetan ere. Egoera ez da suziriak botatzeko modukoa, baina, tira, egunero-egunero lana gogor eginda bizitzeko beste ematen du honek, eta bada zerbait. Hori bai, justu-justu bizitzeko, ez gehiagorako.



## Parte-hartzea eta sariak

□ Guztira 80 animaliak hartuko dute parte: Arabako bi ganadutegi 11 animalirekin; Gipuzkoako bost 31 ganadurekin; eta Bizkaiko zazpi 38 animaliarekin.

□ Emeenak 9 sail eta arrenak 5 sail.

□ Hiru sari sail bakoitzeke

□ Gainontzeko sariak: intseminazio produkturik onena; eme gazte onena; eme heldu onena; ar gazte onena; ar heldu onena; eta ganadutegi onena.







# Jaia eta konpromisoa eskutik, Maalako Gune Askean

**Maalako Gune Askea. Non dagoen argi dago, eta izaera zein duen ere bai, izenak berak argi diolako. Bi txosna ipiniko dituzte aurten Maalako gunean, eta makina bat talde igoko dira oholtzara. Musikaririk ez da faltako beraz, baina ezta aldarrikapenik ere. Gizarte gaietara kezka agertuko dute beste behin, jaietan ere konpromisoak ere bere lekua duela erakutsiaz.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



**O**fizialki San Bartolome jaiak abuztuaren 23an hasiko badira ere, Maalako Gune Askean, azken urteotan bezala, egun bat aurretik hasiko da jai giroa. Jaia eta lana bateratuko dituzte, baina, erreka garbitzen hasiko dituztelako jaietarako antolatu dituzten ekintzak. Erreka garbitu ostera, bazkaria eta bertso saioa iragarri dituzte.

Jaiak bai, baina aldarrikapenak ere badu bere lekua Maalako Gune Askean. Lehen eguna okupazioaren eta gune auto-gestionatuen defentsan egingo dute. Besteak beste gaztetxearen urteurrena ospatuko dute, eta aurtengoa, beste urteekin alderatuta, ezberdina izango da, jaia ez delako Maalara mugatuko. Elgoibarko gaztetxea toki askotan egon da urte hauetan guztietan eta gazteak igaro dituzten leku horietatik pasatuko dira urteurren hori gogoratuz. Forja zaharra okupatu zuten lehe-

nengo, Maalako haur eskolaren lehen solairua gero, Aita Agirreko lokala ondoren, Alkorta eta Jarve lantegietan egon ziren hurrena eta gaur egun Mupem enpresa zen lokalean dago Sute-gixa gaztetxea. Leku horiek guztietatik pasatuko dira, eta tokian tokian ekintza sinboliko bat gauzatuko dute.

## EGUN BAT, ALDARRIKAPEN BAT

Aurten jaietako egun bakoitza aldarrikapen zehatz batekin uztartzen saiatu dira jai batzordekoak: "Uste dugu jaiak aldarrikapenerako espazio izan behar direla, urtean zehar Elgoibarren lantzen diren gaietarako gune bat, arazoak azaleratzeko gune bat". Jai batzordekoek beren egiten dituzten baloreak hartu dituzte egunak aukeratzeko irizpidetzat. Besteak beste euskara izan da aukeratutako gaietariko bat. "Jaietan ere euskaraz



bizi nahi dugula aldarrikatuko dugu, eta jakina, jaiak ere euskalduntasunerareko gunea izan behar dira". Altsasuko gazteen kasuak oihartzun zabala izan du hemen eta kanpoan, eta Maalako gazteen gunea ere badenez, kartzelatutako gazteei elkartasuna agertzeko eta "kasuaren larria" salatzeke eguna ere izango da aurten Maalan. "Elgoibarren egin dira Altsasuko salatzeke elkarretaratzeak-eta, eta jaietan egonagatik ez dugu kasu hori ahazterik nahi". Erretiratuek eta pentsiodunek hasitako borrokari ere egin nahi diete keinu bat. "Garbi daukagu borroka hori ez dela adinekoen borroka bakarrik. Pentsioen gaiak denoi eragiten digu eta horixe azpimarratu nahi dugu jaietan".

### FEMINISMOAK BERE TOKIA

Egun morea izango da Gune Askeko beste egun horietariko bat. Feminismoa ez dute aurrez landu gabeko gaia gune askean. Narrutsik talde feministakoak jai batzordean sartuta daude, eta aurten ere ahalegin berezia egingo dute jaietan ikuspegi feminista txertatzen. Iaz protokolo feministaren aurkezpena egin zuten, eta aurten ere egingo dute, baina beste modu batean. Eraso sexistaren aurrean zein neurri hartu adieraziz bideo bat osatuko dute, eta emakumeen kontrako indarkeriaren gaia uneoro denon buruan izateko lan egingo dute. Protokoloak bi eraso motaren berri ematen du. Eraso mota bati eraso gertatu den lekuan bertan daudenen laguntzarekin egin dakioke aurre. Horrelako kasuetan biktimari lagunduko

diote batetik, eta bestetik, erasotzailea Gune Asketik kanporatuko dute, jarrera hori uzteko exijituko ondoren. Musika itzali eta edariak zerbitzeari ere utziko diote halakorik gertatuz gero. Eraso larriagoa bada, berriz, Udaltzaingora deituko dute, baina haiek etorri bitartean, biktimari laguntzeko ardur hartuko dute. Halakoetarako protokoloa zehaztu dute: ez zaio erasotuari janik eta edanik emango, eta ez da garbituko. Laguntzaileek, gainera, diskrezio osoz jokatu dute eta ez diote gertatutakoa kontatzeko eskatuko. Eta jakina, ez dute une batez bakarrik lagako eta eraso salatzeri animatuko dute, horretarako telefono zenbakiak erraztuz. Protokoloa prestatzeaz gain, Egun Morerako hainbat material ere prestatu dute. Beste herrietako ereduari jarraituz, zapiekin eta argazkiekin apainduko dituzte txosnak.

### JAI BATZORDEA ETA ELKARLANA

Jaiak antolatzeke esku asko behar izaten dira. Aurten, jai batzordea indartu egin da, eta aurrez ibili gabeko jende gazte asko batu da taldera. Jaiki, Gazte Asablada, Narrutsik eta Sare dira jai batzordeko talde eragileko kolektiboak, baina horrez gain, jai batzordeak herriko hainbat elkarte eta taldeekin egin du harremana ekintza zehatzak elkarlanean antolatzeke edo haien ekarpenak jasotzeke: Egur arte eskola, Elgoibarko Izarra, Duintasuna, Sinuose, larrain-dantza ikastaroa antolatzen aritu direnak eta dultzaineroak.

## EGITARAUA

### ABUZTUAK 22, EGUAZTENA

#### Okupazioaren eta gune autogestionatuen defentsan!

**9:30** Gosaria. Maalan.

**10:00** Erreka garbiketa.

**14:30** Bazkaria. Maalan.

**Jarraian** Bertsolariak: Aitor Bizkarra, Jokin Uranga eta Eli Pagola.

**Ondoren** Protokolo feministaren aurkezpena.

**19:00** Gaztetxearen urteurren ekitaldi ibiltaria.

**22:00** Kontzertua: Libe. Gaztetxean.

### ABUZTUAK 23, EGUENA

#### Sebas etxera!

**12:45** Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko kontzentrazioa. Kalegoen plazan.

**15:00** Bazkari herrikoia Maalan. Antolatzailea: Sare.

**Jarraian** Kantaldia Beñat Aiartzarekin.

**20:00** Kontzertua: La Jodedera. Maalan.

**01:00** Elvis Caino Dja. Maalan.

### ABUZTUAK 24, BARIXAKUA

#### Egun morea

**13:00** Haurrentzako eskulanak. Maalan. Egur arte eskolarekin elkarlanean.

**21:00** Larrain-dantza herrikoia. Maalan.

**22:00** Kontzertuak: Pelax eta Telmo Trenor. Ondoren, Anita Parker. Maalan

### ABUZTUAK 25, ZAPATUA

#### 1080 gutxieneko pentsioa!

**19:00** Pintxo banaketa eta pentsiodunen aldeko bilkura. Maalan

**22:30** Kontzertuak: Debras, The Potes eta Salda Badago. Maalan

### ABUZTUAK 27, ASTELEHENA

#### Jaietan ere euskaraz!

**19:00-21:00/23:00-01:00** Erromeria: Joxpa. Maalan.

### ABUZTUAK 28, MARTITZENA

#### Altsasukoak aske!

**13:00** Txupinazoa eta argazki erraldoia.

**15:00** Bazkari tematikoa. Mozorrotzeko gaia: musikariak. Sigman.

**Jarraian** Mozorroen sari banaketa.

**18:00** Elektroxaranga eta erronka poteoa.

**Maalara iristean** Altsasukoekiko elkartasun argazkia.

**Kontzertuen tartean** Twister erraldoia. Maalan.





## Maalako Gune Askeko musika emanaldiak

### LIBE

Abuztuak 22, eguaztena



Libe Garcia de Cortazarrek rock ma-lenkoniatsu eta iluna eskainiko du oinarri erritmiko sendoz la-gundutako teklatu eta ahotsekin. Doinuak indartsu bezain haus-korrek dira, barru-bar-rutik sortuak eta barrenak astintzen di-tuztenak.

### BEÑAT AIARTZA

Abuztuak 23, eguena



Zamudioko abes-laria da, eta gitarra lagun, euskal kantuk eskainiko ditu bazka-lostean, tradizional zein modernoak. Ma-haira batutakoak kan-tuan jarriko ditu Aiartzak.

### LA JOEDERA

Abuztuak 23, eguena



Musikari euskaldu-nek eta kubatarrek osatutako laukotea: Jon Txorromorro gita-rrajole eta abeslaria, James Bap baxujolea, Mandi Cienfuegos perkusio-nista eta abeslaria eta Oscar La Habana hi-ruko kubatarduna. Musika aldarrikatzai-lea egiten dute.

### ELVIS CAINO

Abuztuak 23, eguena



Gaugiroan murgil-tzeko musika jarriko du Elvis Caino rock & soul disko jartzaileak.

### PELAX eta TELMO TRENOR

Abuztuak 24, barixakua



Donostiako Egia auzotik etorriko dira Telmo Trenor DJ-a eta Unai Pelayo Pelax gi-tarrista. Folk, blues eta rock doinuetan aritzen da Pelax bere taldearekin, baina Telmo Trenorrekin rocka eta elektronika uztartuko ditu.

### ANITA PARKER

Abuztuak 24, barixakua



Gose, Skalariak eta Zango taldeetan aritutako musikariek osatzen dute Anita Parker taldea. Elektronika, swingaren txantxa eta dantzagarritasuna uz-tartuz askotariko melo-diak eskainiko dituzte emanaldian.

### DEBRASS BAND

Abuztuak 25, zapatua



Taldea debarra sei lagunek osatzen dute: Joseba (tuba), Jon (saxo altua), Iñigo (saxo baritonoa), Mar-tina (tronboia), Julen (tronpeta) eta Irtz (ba-terria). Blues, pop, rock, funk eta runba doinuak joko dituzte.

### THE POTES

Abuztuak 25, zapatua



Zazpi musikariz osatutako Arrasateko taldea da. The Pogues taldea du erreferente, baina Dropkick Murphys edo Flooding Molly taldeetatik ere edan dute. Kontzertu alaia iragarri dute, folk-punk melodia handi-koa.

### SALDA BADAGO

Abuztuak 25, zapatua



Urretxu-zumarra-gako erromeria taldea da. Rock eta ska doi-nuko kantuen bertsioe-kin dantzan jarriko dituzte Maalara gertu-ratzen diren guztiak, trikitixa gitarra, baxu, tronpeta eta perkusioa lagun hartuta.

### JOXPA

Abuztuak 27, astelehena



Lau lagun dira eta erromeriarako taldea da eurena. Euskal mu-sika, eta batez ere, dantza kantuk joko dituzte Maalako giroa piztuz. Hainbat talde-ren bertsioak egiten di-tuzte: Etzakiten trikiti soinetatik Su Ta Gar eta Berri Txarraken rock abestietara artekoak.





317  
api

# GABILONDO

INMOBILIARIA AGENTZIA  
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola  
Jose M<sup>a</sup> Azpeleta Iturricastillo

San Frantzisko, 51 behea - Elgoibar  
943 744 467 - 685 752995  
[www.inmobiliariagabilondo.es](http://www.inmobiliariagabilondo.es)  
[inmobiliariaazpeleta@live.com](mailto:inmobiliariaazpeleta@live.com)

HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA  
ASAP AGENTE KOLABORATZAILE HOMOLOGATUA

Eskaintza berezia etxebizitzan, garajeen, lokal komertzialen, industria pabiloien eta baserrien salmentan nahiz alokairuan



## ASKETA S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

### DENDAK

Pedro Muguruza, 5  
20870 Elgoibar  
[asketa@asketa.net](mailto:asketa@asketa.net)  
[www.asketa.net](http://www.asketa.net)

Maxpe, 3 - 5 behea  
20820 Deba

### BILTEGIA

Igartu Industrialdea  
Pab. NN 0-8-9  
20850 Mendara

ESKATU AURREKONTUA  
KONPROMISORIK GABE  
☎ 943 19 19 52

Zure esku jartzen ditugu profesional onenak,  
konfiantza eta kalitatea eskainiz.

BERRITZE LANAK - PROIEKTUAK - INSTALAKUNTZAK - DISEINUA - AHOLKULARITZA



Ondo pasoa jaiak!



## IHARDUN

MAQUINAS ESPECIALES, S.L.

# ONDO PASAU JAIXAKI!

Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L  
Tel.: 943 744 466 · Faxa: 943 53 14 74  
[ihardun@ihardun.net](mailto:ihardun@ihardun.net) · [www.ihardun.net](http://www.ihardun.net)







## “Abeslari gisa ditudan ezaugarrien neurrira egindako kontzertua izango da”

### ► SERAFIN ZUBIRI ABESLARIA

Serafin Zubiri (Iruñea, 1964). Eurovisionen parte hartu zuelako eta itsua delako egin zen ezaguna. Solfeo, musika eta kantu ikasketak egin ostean, Iruñeko Equus orkestrarekin eman zituen lehen pausoak piano-jole eta abeslari modura, eta bakarkako bideari ekin zion gero berriz. Gaur egun bakarkako emanaldiak prestatzen ez ezik beste proiektu batzuetan ere aritzen da, musika bandekin eta orkestraren batekin ere bai. Elgoibarrera En esenzia orkestrak lagunduta etorriko da.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

#### ◆ Elgoibarren En Esenzia orkestrarekin arituko zara. Zertan datza *Serafin Zubiri en esenzia* emanaldia?

*Serafin Zubiri en esenzia* ikuskizun berri zailea dela esan genezake. Izan ere, bi ikuskizunek bat egiten dute bakarrean. Dantza orkestraren egiturarekin -musikariak, soinu-ekipoa...- nire kontzertua egiten dugu, eta horri orkestrak dantzaldia gehitzen dio. Emanaldiak badu arrakasta, eta esan dezaket askotariko jendea batzen dela. Kantuak ere estilo askotarikoak dira, jakina. Errepertorio oso fina da, propio hautatutako abestiak dituena, eta oso ondo zaindua, besteak beste moldaketei

dagokienez. Kantuak ez dira orkestrek gehienetan jotzen dituztenak, konplexuak direlako-edo. Abeslari gisa dauzkadan ezaugarrien neurrira egindako kontzertua dela esango nuke. Plazan zerbait berezia, zerbait berria, eskaintzea da gure asmoa.

#### ◆ Beste abesti batzuen bertsioak dira ala zuk zeuk egindakoak?

Ez luke zentzu handirik izango kontzertu bat nire kantuekin bakarrik egiteak, ez baitira hain ezagunak. Kontzertu estandarra da kantu oso ezagunekin; hori bai, nire estilora, nire interpretatzeko erara egokituak denak. Askok beharbada mu-

sika erromantikoarekin lotzen nau, baina kontzertu honetan musika erromantiko gutxi dago. Ketamaren *No estamos locos* abestitik hasi eta 70. hamarkadako pop musikara arte denetariko abestiak eskaintzen ditugu. Pop, saltsa zein Mexikoko musika. Nino Bravoren abestiekin ere potpourri bat egiten dugu. Izan ere, badu beste ikuskizun bat musika bandekin egiten dudana, hein handi batean Nino Bravori eskainitakoa, eta kontzertu honetan ere tokitxo bat egiten diegu kantu horiei. Hala ere, horrek ez du esan nahi nire abestiak ere kantatzen ez ditudanik. Eaterako, orain dela urte batzuk Disneyko *La*





## “Nire esentzian daude bizitzeko gogo handia eta sentrazio berriak probatzea”

### **zela eta orain zaudela musikako zure momenturik onenean.**

Eurovisionen bi aldiz hartu dut parte eta oroitzapen onak ditut. Nire bizitzan momentu erabakiorrak izan ez badira ere, garrantzia izan dute. Jendeak gogoan du nire parte-hartzea eta horrek irekitzen ditu hainbat ate. Urtetan ereindakoaren fruituak jasotzen ari naiz orain, eta egiten ari naizenarekin gozatzten. Gainera, lau ikuskizunetan parte hartzen ari naiz. Elgoibarren egingo dudana gain, beste bi dauzkat musika bandekin egiten ditudanak: *Recordando a Nino Bravo* eta *El baúl de los 70*. Eta nik pianoarekin egiten dudana bestea, nire kantuak zein beste artista batzuenak abestuz, baina formatu intimistagoan.

### **◆ Zure musika ibilbidean askotariko musika landu duzu, ezta?**

Nik eskola klasikoa daukat musikan, solfeoa eta pianoa ikasi baintuen. Ibilbide artistikoa dantza orkestratan hasi nuen, eta gerora 8 diska kaleratu ditut. Ibilbide luzea dut, eta gauza asko egin ditut.

*bella y la bestia* egin nituen kantu batzuk eta horien pot-purri bat eskaintzen dut, Eurovisionen kantatutako beste abesti bat, nire azken diskokoren batzuk...

Beraz, kontzertu hau askotarikoa da, eta gehienetan egiten denarekin alderatuta, ezberdina. Jendeak ezagutzen duen erreperitorio bat eskaintzen dugu, entzuteko, eta era berean, dantzatzeko izan daitekeena. Jendeak ni abeslari moduan ezagutzen nau, eta gehienetan entzutera etortzen da kontzertu formatukoa delako, baina ez da dantzarekin batera ezina.

### **◆ Ikuskizun honetan zure ahotsa da nagusi, ezta?**

Orkestra oso ona da. Nire ustez, inguruotan dagoen onena; horregatik aukeratu dut. 10 laguneko orkestra da. Laukote bat dago oinarrrian (bateria, baxua, gitara eta teklatura), hiru metal eta beste hiru abeslari. Kontzertu hauetan nirekin korista lana egiten dute, eta dantzaldietan beraien dira kantari. Dena dela, nire kontzertuko abesti batzuetan nirekin kantari modura ere aritzen dira. Baina nagusiki kantuen pisua nirea da.

### **◆ Serafin Zubiri en esenzia da emanaldiaren izena, baina zein da Serafin Zubiriren esentzia?**

Artista moduan, dantza orkestratan hasi nintzen kantuan ni orain dela 35 urte, beraz, ikuskizun honekin esentzia hortara itzultzen naiz, baina urtetako esperientziarekin eta ikasitako guztiarekin, noski. Horrez gain, denok ezagutzen ditugun kantuek ere gure esentziara garamatzate.

Ni neu, bestalde, esentzian, funtsean, oso pertsona normala naiz, jakin-min handikoa, bizitzeko gogo handikoa eta sentrazio berriak probatu zalea. Nire bizitzan barrena gauza asko egin ditut musikaz gain eta zintzoa eta prestua izaten saiatzen naiz.

### **◆ Eurovision jaialdian parte hartu zenuelako ezagutzen zaitu jende askok, baina zuk esana da hura pasa**

### **◆ Musika askok zaletasun modura dauka, baina zuretzat bizimodua da. Beraz, zein beste zaletasun daukazu?**

Zorte handia da gustuko dudana hortatik bizi ahal izatea eta oso pozik nago. Musika dut bizimodu eta kirola zaletasun. Txirrindularitza egiten dut batez ere, baina beste kirol asko egin ditut: atletismoa, abiadura patinajea... Sentrazio berriak probatzea dut gustuko.

### **◆ Jendeari, beharbada, irudituko zaio duzun ezintasunarekin egiten dituzun kirolak egitea ezinezkoa dela.**

Bai, batzuentzat arraroa da itsua izanik horrelako kirolak egitea nik, baina ezintasun horregatik garatu dut horrelako gauza bereziak egin ahal izateko gaitasuna. Gaintzeko nahi hori ezinbestekoa izan da nire bizitzan. Musikari dagokionez, entzumena da garatu beharrekoa eta itsua izateak beste zentzumen batzuk gehiago garatuarazi dizkidanez, hori nire onerako izan da.

### **◆ Musika arloan lau proiektu dituzu esku artean. Aurrerantzerako besterik badaukazu buruan?**

Oraingoz esku artean dudanarekin nahikoa dut, baina buruan bueltaka dabilkit bandekin egiteko beste ikuskizun bat. Bestalde, kantu berriren bat edo beste egin arren, diskografia kontua zailagoa da, beste dimentsio batean dago eta ez dut ezer egiteko asmorik, ez dut beharrik disko bat egiteko, nire burua aurkezteko. Beraz, aurrerantzean ikuskizun hauekin jarraituko dut, eta gero gerokoak.



Serafin Zubiri En esenzia orkestrako kideekin.



# Kirol argazki onenak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak kirol argazki lehiaketa antolatu dute aurten ere, Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan. Lehiaketara 55 lan aurkeztu dituzte, baina nahikoa maila izan ez denez, nerabeen kategorian ez da saridunik egon, ezta gazteen kategorian bigarren saridunik ere. Sariak abuztuaren 22an banatuko dituzte eta gero Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo dira ikusgai irailaren 1era arte, egunero, 18:30etik 20:30era, hilaren 26an eta 27an izan ezik. Hona irabazleak:

## SARI OROKORRA

1. saria: Javier Pedro Fernandez Ferreras  
(Castro Urdiales).  
JAN

2. saria: Javier Colmenero Aguiar (Eibar)  
SURF

## GAZTEEN SAILA

Mikel Taboada Blanco (Ermua)  
AMETS BATEN BILA

## HERRIKO SARIA

Sara Beristain Cerrejon  
KEEP DOING



Javier Pedro Fernandez Ferreras

Javier Colmenero Aguiar







Mikel Taboada Blanco



Sara Beristain Cerrejon



# Azken atari berria salgai UBITARTE GAIN

3 LOGELA 248.000 € + bez -tik aurrera

**%68**  
SALDUTA  
ERAIKUNTZAN



Teilatupeko espazioak  
dituzten **ATIKOAK**

Soto-solairuko espazioetara  
sarbidea dituzten  
**BEHE-SOLAIRUAK**

GUZTIAK BARNE



ETXEBIZITZA



ARMAIRUAK



SUKALDEA



PERTSONALIZAZIOA

**sukia**  
Zure etxean zaude  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

**LAZKANO**  
[www.grupolazkano.com](http://www.grupolazkano.com)

Ongi etorri! **943 316 586**

Informazio hau adaldua izan daiteke anizko tekniko, juridiko edo komertzialak direla medio.



**urkotronik** | **35**  
urte

## Hainbeste itxarondako festak iritsi dira. Ondo pasa!

Ostalaritzan eta Vending-ean adituak.  
1983 geroztik.

Banatzailerik ofiziala:

[www.urkotronik.com](http://www.urkotronik.com)

| 943 203 112

**AZKOYEN.**



# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**  
BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
tienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com  
BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com  
ELGOIBAR

**Fontanería Ibámar**  
ITURGINTZA  
San Roke 10-A, behea B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net

**ONGI** Iturgintza  
Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxe: 943 254 523  
ongi@ongi.elgoibar.com  
www.ongi.elgoibar.com

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA  
  
Azpilgoeta 7 behea - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintza@tellabide@hotmail.com

**SANTANA**  
Igor Santana  
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.  
Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santana@iturgintza@gmail.com

## ARozTEGIak

**ASIMA**  
Aroztegia - Carpintería  
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar  
687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**  
ARozTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albixuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547

**BIENA S.L.**  
ARozTEGIA  
Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus  
f

**IMAR**  
ARozTEGIA  
Olaso industriagunea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteria@imar@hotmail.com  
f

**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak  
Kurutz-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
www.iraolagoitia.com

## ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA  
Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
karranzaj@icm.com  
Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.  
Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR  
Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR  
Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

**iparelek s.l.**  
elektrizitatea  
Kilimon hiribidea, 1 - Mendara  
943 530 356  
iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com

## LEIHOAK

**LODOSO LEIHOAK**  
SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## IGELTSERITZA

**A. Garate**  
Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua  
angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar  
**610 226 651**

**E. ARANDIA**  
ERREFORMA ETA LEIHOAK  
Urazandi, 22 behea - Elgoibar  
Tel.: 605 705 204  
Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurrekin ere  
lan egiten dugu.

## PINTURA

**BIODOK**  
dekorazioa  
Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida

Gremioen gida





**Adi! Zerbait handia dator aldatz hertz klinikan!  
Ondo pasa San Bartolome jaietan!**

**943 366 3 77**  
[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)



Lasarte-Oria  
Ola kalea, 10

Elgoibar  
San Bartolome, 22

Tolosa  
San frantzisko, 39